

Maskarada taldea

'Picasso 1937' lana aurkeztu du Oñatin
KULTURA, 24



Mondrak 0-3 irabazi dio Hondarribiari

Aloñak 2-2 berdindu du Zestoan eta UDak 0-0 egin du Mutrikun
KIROLA, 12-13

Ruper Ordorika

Disko berriaz berba egin digu
KULTURA, 26



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2006ko azaroaren 27a • 3. urtea • 124. zenbakia • 0,90 euro

Autokarabanak aparkatzea gehiago zainduko dute

Zenbait aparkalekutan autokarabanak pilatzen direlako neurriak hartuko dituzte Bergaran eta Antzuolan

Aurten Estatuan inoiz baino auto-karabana gehiago saldu dira. Gurean ere, azken urteotan mota horretako gero eta ibilgailu gehiago ikusten dira kalean, asko kalean bertan denbora luzez aparkatuta. Bada, aparkatze arazo hori zelan erregulatu aztertzen dabil-tza udal batzuetan. Erabiltzaileek, bestalde, daukaten zerbitzu gabezia salatzen dute. **2-3**

UDAL ORDENANTZAK
Antzuolako Udala arazoa erregulatzeko ordenantza prestatzen dabil; Bergaran ere neurriak hartu dituzte

GORDETZEKO AUKERAK
Arrasaten erdigunetik kanpoko bi kaletan utz daitezke eta Oñatin leku estali pribatua dago

LEGEDIA, LAUSOA
Autokarabanez gainontzeko ibilgailuen eskubide berak dituzte, baita aparkatzeko ere

GABEZIAK
Europarekin alderatuta, arauetan zein zerbitzuetan "oso atzean" gaudela diote erabiltzaileek

Barruan Mondragon Futbol Elkarteen posterra



JOSETXO ARANTZABAL

ARRAKASTAZ ESTREINATU DUTE 'LA LEYENDA DEL BESO'

Aste bukaeran egindako bi emanaldietan Amaia antzokia lepo bete da Izaskun Murgia Elkarte Lirikoaren *La leyenda del beso* zarzuela ikusteko. Eta eskari handiari erantzuteko, datorren aste bukaeran beste bi emanaldi egingo dituzte: barikuan bata eta zapatuan bestea. Sarrerak salgai daude Amaia antzokian. **22-23**

Modu arduratsuan kontsumitzeko kanpaina abiarazi dute **5**

Kilometroak jaiaren leloa eta logoa aurkeztuko dute barikuan **8**

Jangela eta zaintza zerbitzua Angiozarko eskola txikian

Zaintza eta jangela zerbitzuak estreinatu ditu Angiozarko eskola txikiak. Zapatuan inauguratu zituzten, ikasle, guraso eta Bergarako Udaleko ordezkariekin batera. Eskolako guraso elkarte-ko lanaren fruitu dira; izan ere, halako zerbitzuen beharra nabaritzen zuten gurasoek. Guraso elkartearen esanetan, berebiziko garrantzia dute, eskolaren zein auzoaren bizi iraupenerako". **4**

SUPER AMARA

DENAK GUTXIAGO BALIO DU

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 Bezeroentzako Aparkalekua

GEUREAN

- Euskararen Egunaren harira hainbat ekitaldi egongo da asteen | 8
- Fagor Automatioken instalazio berriak inauguratuko ditu etzi | 8



Hector Soto
Venezuelako
Kultura Ministerioko
kidearekin
jardun dugu | 7

AUTOKARABANAK ETA APARKALEKU ARAZOAK

ZIRKULAZIOA | AUTOKARABANAK ETA KARABANAK KALEAN APARKATZEA ERAGOZPENAK SORTZEN HASI DA BERGARAN ETA ANTZUOLAN

Karabanak aparkatzea erregulatuguran dabilta

Luzaroan aparkatuta lagatako autokarabanak pilotzen hasi dira ibarreko hainbat gunetan

Erabiltzaileek gainontzeko ibilgailuen eskubide berak eta aukera alternatiboak nahi dituzte

Jon Bereizbar

Karabanen eta autokarabanen kopurua nabarmen handitu da azken bost urteetan Estatuan. Gurean ere gorakada hori agerikoa da, gero eta gehiago dira eta mugitzeko eta lo egiteko askatasun osoa ematen duen garrantzitsua mota hori aukeratzeko dutenak. Arazoa, baina, uda sasoi amaitzean dator, autokarabana eta karabanekin zer egin jakin ez eta askok herrietako aparkalekueetan uzten dituztelako. Eguntan, makina bat karabana eta autokarabana ikus daitezke geldi. Arrasaten edo Oñatin bereziki helburu hori duten aparkalekuak daukate, baina Bergaran, esaterako, Matxiategi kalean dagoen aparkalekuan aspalditik dago ohitura bertan autokarabana eta karabanak uzteko. Hori ikusita, Antzuola eta Bergarako udalak neurriak aztertzen hasi dira. Hala, Bergarako udaltzainak, egoeraz jabetuta, Matxiategi parkean uzten dituztenen kontrola era-

maten saiatzen dira eta dagoneko hasi dira jabeak ohartarazten handik mugitu behar dituztela jakinarazteko. Hain zuzen ere, abenduko zubiaren ostean zorrotzagoak izango dira eta bertan geldi dauden autokarabana eta karabana guztiak lekuz aldatu beharko dituztela jakinaraziko diete. Gainera, Juanjo Arrieta Udaleko gobernazio-buruak azaltzen duenez, moduren baten arazo hori erregulatuzko neurriak aztertzen dabilta. Era berean, herriko zirkulazioa eta aparkatzea arautzeko ordenantza idazteko lanetan dabiltzanek Antzuolako Udalekoak dira. Sagasti aldean lauzpabost karabana egon ohi dira geldi Antzuola-

Antzuola eta Bergarako udalak zer neurri hartu dabilta aztertzen



JON BEREIZBAR

Bergarako Matxiategi kaleko aparkaleku horretan hamar bat autokarabana egon ohi dira, geldi.

lan, behin uda denboraldia amaitutakoan, eta hori erregulatu gura dute Udaletik.

APARKATZEA BETI DA LIBRE
Edozelan ere, legediari dagokionez, har daitezkeen neurriak oso

Alde batetik, erregulamendua falta da, eta bestetik, zerbitzuak

malguak dira. Autokarabanek gainontzeko ibilgailuen arau berberak bete behar dituzte eta leku egokian utzi eta behar baino espazio handiagoa okupatzen ez badute, edonon aparka daitezke ibilgailuok, hiri erdian zein natura gunetan ere.

Epeari dagokionez, zirkulazio legeak dio edozein ibilgailu gehien ere 48 orduz aparka daitezkeela leku berean. Karabanen kasuan, baina, desberdina da, legez kanpatzeko gunetan utz daitezke eta erremolke horiek. Udal tasei dagokionez, ibilgai-

luaren arabera kopuruak ordaintzen dituzte autokarabanek eta karabanetan 500 kilotik gorakoek soilik ordaintzen dituzte tasak. Arrasaten eta Oñatin, bestalde, aparkatzeko arazoa aparkaleku bereziekin konpontzen da. Hala, Arrasaten bi gunetan utz daitezke karabana, autokarabana eta erremolkeak: Markuleten eta Osinaga kalean eta inguruan (Musakolan). Nahi beste denbora utz daitezke ibilgailuak han, baina kalean inolako babes barik dagoen lekua da. Oñatin, ordea, partikular batek

Aurten saldu dira Estatuan inoizko autokarabana gehien, eta hazten doa merkatua

Azken bost urteetatik hona, autokarabana eta furgoneta prestatuen salmentek gora egin dute. Aurten saldu dira autokarabana gehien Estatuan; guztira 2.000 saldu dira, Autocarabanas Tolosa enpresako arduradun Ramon Tobesek emandako datuen arabera. Hala ere, zenbaki horrek ez du alderik ere Europako beste leku batzuekin. Frantzian, esaterako, 17.000 autokarabana saldu dira aurten. Estatuan hazten dabilen merkatua da.

Gazteak, familiak eta erretiratuak dira turismo mota horren zaleak

Sektorean egindako gorakada gehienbat seme-alaba txikiak dituzten familia gazteak izan dira, eta orain dela bizpahiru urteko kontua da hori. Autokarabanaren erosotasunarengatik eta mugitzeko askatasunarengatik aukeratzen dute ibilgailua. Erretirotik gertu daudenek ere autokarabana erosi ohi dute, baina gazteek nahiago dituzte prestatutako furgonetak. Hiru talde horiek eragin dute sektorean gertatutako iraultza hori.

Erabiltzaileak ere kexu dira udalaren presioarengatik eta sortu den uste txarrarengatik

Autokarabana erabiltzaileek ere badute zer esana aparkalekuen kontuan. Udal askotan presio handia egiten da autokarabanen jabeak ohartarazten eta hainbat lekutan, turistikoak badira are gehiago, galarazpenak ezartzen hasi dira. Legedia ez da batere zehatza eta ibilgailu guztiak dituzten betebeharrak eta eskubideak dauzkate autokarabanek ere. Gehien ere 48 ordu egon daitezke leku berean ibilgailu bat aparkatuta, legez.

AUTOKARABANAK ETA APARKALEKU ARAZOAK

kudeatzen duen pabilioi baten utz daitezke karabana eta autokarabanak, kuotak ordainduta. Olabarrieta auzoko pabilioi hartara eramaten dituzte ibarreko askok euren karabanak.

HUTSUNE HANDIAK

Legeetan hutsune handiak daude, baina oraindik garatzen dabilen errealitatea da; izan ere, ordentzez gain, autokarabanen erabiltzaileei eskaintzen zaizkien zerbitzuetan eta erraztasunetan ere gabezia handiak daude. Oso urrun joan barik, Debagoienean ez dago kanpin edo gune bat bera ere autokarabanetako erabiltzaileek ur zikinak bota ahal izateko edo beste barik egon ahal izateko. Eta erritmo bizian hazten dabilen turismo mota da. Estatuan dagoeneko 400.000 bat familia daude autokarabana edo karabana dutenak, Autokarabanaren Aldeko Plataforma Autonomoaren datuen arabera.

Baina errealitate horrek oraindik isla txikia dauka. Hain zuzen ere, 2004. urtera arte ez zen zirkulazio-kodean autokarabanen erreferentziarik ageri. Erregelamenduak, gainera, ez du aparkatzearen eta kanpatzearen gaineko ezberdintasunik egiten eta arauak oso lausoak dira, inondik ere. Europan turismo sektore handienetakoa da gaur egun. Europar Batasunean 1.500.000 autokarabana inguru daude.

• ZER IRITZI DUTE ERABILTZAILEEK ETA HERRITARREK?



GAINONTZEKO IBILGAILUEN BEGIRUNE BERA.

Joxu Aranek orain dela 7 urtetik dauka autokarabana eta hura gordetzeko garajea dauka. Hala ere, ez dago kaleko eztabaidatik kanpo, Udaletik jasoa du eta oharren bat edo beste: "Gainontzeko autoekin moduan autokarabana daukagunok ere zirkulazioaren gaineko zerga ordaintzen dugu eta ondorioz eskubide berak izan behar ditugu, furgoneta handi batek dauzkan bezala". Aparkalekuen inguruan sortutako ika-mikari buruz dio autokarabanak egun askotan aparkatuta ote dauden kontrolatzen duten moduan, autoekin ere berdin jokatu beharko luketela, eta horregatik azkenaldian autokarabanen erabiltzaileengan sortutako uste txarrarekin ez dator bat. "Ibilgailu desberdina izango balitz bezala ikusten du jendeak autokarabana, eta horrek ez luke hala izan beharko".

ZERBITZU GEHIAGO BEHAR DIRA.

Bergarakoa da Gallastegi familia (argazkian Malen eta Maika alabak), eta orain dela 10 urtetik daukate autokarabana. Herrian zein inguruan autokarabana utzi ahal izateko leku bila ibili eta aurkitu duten bakarra Oñatiko Olabarrieta auzoan dagoen biltegi itxia da. Erabiltzaileentzat zerbitzu eta erraztasunik ez dagoela da haien kexua, eta Udala ezin daitekeela "alde batera begira bakarrik egon", eta ez dagoela "zergak kobratzeko bakarrik". Zerbitzuak eskatzen dituzte, ordainduta bada ere. Frantzia ipintzen dute eredu moduan: "Han herri ia guztiek autokarabanendako eremua daukate, zerbitzu guztiekin, eta turismo mota horrek begirune guztia" duela azaltzen dute. Gurean "ez dago ez kontsiderazio onik ezta ordenamendurik ere eta Europako herrialdeekin konparatuta oso atzera goaz", dio Damaso Gallastegik.



Estatuan dagoeneko 400.000 bat familiak aukeratzen dute garraio hori

Sektoreak hazkunde handia izan du eta gora jarraituko du etorkizunean ere



ALTERNATIBA GUTXI.

Datuen arabera, autokarabanen merkatua oraindik gehiago haziko da datozen urteetan eta dagoeneko areagotze hori nabaria da gureko kaleetan ere. Kalean aparkatzea arazo bihurtu bada ere, erabiltzaileei ez zaie alternatiba askorik geratzen. Kalean uzteak, gainera, lapurreta eta hondatze arriskuak dakartza. Bergarako Matxiategiko aparkalekuan lapurretak izan direla diote erabiltzaile batzuek. Arrasaten, Markuleta eta Osinaga (argazkian) kaleetan utz daitezke ibilgailu horiek, baina leku bakarra dago ibar osoan eta inguruetan aterpe baten eta itxita lagatzeko: Oñatiko Olabarrieta auzoko pabilioi baten. Zerbitzuetan gabezia asko dagoela diote erabiltzaileek eta autoa aparkatu gura dutenek diote haiek plazak denbora luzeegian okupatzen dituztela.



Erosten jakin:
ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

 **EROSKI**
Erosten jakin

ANGIOZARKO ESKOLA TXIKIA | GURASO ELKARTEKO KIDEEN LANAREN FRUITU DIRA, ETA ZAPATUAN INAUGURATU ZITUZTEN ZERBITZU BERRIOK

Angiozarko eskolan ere badituzte jangela eta zaintza zerbitzuak

Zerbitzuok berebiziko garrantzia dute eskolaren eta auzoaren biziraupenerako, gurasoen ustez

Monika Belastegi

Zapatuan Angiozarko eskola txikiko jangela eta zaintza zerbitzuak inauguratu zituzten. Ikasle, guraso, amama eta Udaleko ordezkariak batu ziren inaugurazio ekitaldian.

Eskolan bertan egokitu dute jangela. Txikitxo da, "xumea", inaugurazio ekitaldian esan zuten moduan, baina beharrak modu egokian asetzen ditu, zaintza zerbitzuak bezala, eta horixe da garrantzitsuen. "Ikastetxe handiek baldin badute, guk zergatik ez, bada?", esan zuen Jon Ander Loitik, Angiozarko eskola txikiko Gurasoen elkartearen lehendakaria. Eta arrazoi du. Han ere gurasoek lan egiten dute, eta halako zerbitzuen beharra nabaritzen zuten. Hain justu ere, gurasoek eta guraso gaiek egindako batzarrak izan dira zerbitzu berrien abiapuntua eta ezinbestekotzat jo zituzten haurrak Angiozarren geratzeko. Hala, eta lan handia egin eta gero, bete egin dute. Izan ere, guraso elkartearen kideek eurek egokitu dute jangela, liburutegiaren alboan, hilabete eta erdiko lanaren ondoren -uztail eta abuztu bitartean egokitu dute-.

Laguntzaileak ere izan dituzte eta inaugurazio ekitaldian eskerrak eman zizkien Loiti Gurasoen elkartearen lehendakariak materialetan eta dirutan emandako laguntzarengatik. Besteak beste, eskerrak eman zizkien Candy eta Fagor etxetresna enpresei, Eroskiri, Saneamientos

Guipuzcoari, Servimasari eta Auzo-Laguni. Horrekin batera, Bergarako Udalarendako eta Hezkuntza Sailarendako ere izan zituen esker hitzak, "izan duten erantzun azkar eta emankorrenagatik". Baita Auzo-Lagun enpresako Susana Roa eta Hezkuntza Saileko jangela zerbitzuen arduradun Javier Garcari, "opor garaian izanda ere eman diguten laguntzarengatik".

ESKOLA BAKO EGUNETAN ERE ZABALIK

Jangela eta zaintza zerbitzua zabalik egongo dira umeek eskolarik ez izan arren; izan ere, gurasoen lanegun guztiak bete gura dituzte. Gainera, eskaintza hori zabaldu gura diete Angiozarko eskolan ez ibili arren Angiozarkoak diren umei. Azken batean, "proiektu hau herriarena eta herriarentzat delako eta ez eskola komunitate-arena", Loitik azaldu bezala.

ORDUTEGIA GURASOEN BEHARRETARA EGOKITUTA

Aurtengo ikasturtean Haur Hezkuntza eskaintzen du Angiozarko eskolak eta 2 eta 5 urte arteko zortzi ikaslek dihardute. Zerbitzuen ordutegia gurasoen

Zerbitzuen ordutegia gurasoen beharretara egokitu dute



JOSETXO ARANTZABAL

Ikasle, guraso eta Udaleko ordezkariak Angiozarko eskola txikiko jangelan.

beharretara egokitu dute: zaintza zerbitzua 07:30ean irekiko dute eta eskola orduak hasi arte egon daitezke han umeak. Bazkalorduan, berriz, jangela eta zaintza zerbitzuak egongo dira martxan eta bazkalostean, zaintza zerbitzuak zabalik jarraituko du 17:00ak arte. Gero, liburutegi zerbitzua zabalten dute eta han jarrai dezakete umeek gurasoek beharrik izanez gero. Jangela eta zaintza zerbitzuez arduratzeko pertsona bat kontratatu dute eta bazkalorduan laguntzaile izango du. Zerbitzuon kosturen herena gurasoek hartuko dute beren gain, beste heren bat Bergarako Udalak eta hirugarren herena dirulaguntzen, zozketen... bidez lortuko dute.



JOSETXO ARANTZABAL

Eskolako ikasleek inauguratu zuten jangela zintaren korapiloa askatuta.

Azaroaren 27a:
109 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, azaroak 27, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak! Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeuren izen zaitzake hurrengo zozketako irabazleetako bat!

108 zozketako saridunak

Zortzi sarrera abenduaren 1ean ELGETAKO ESPALOIAn DANBAKA MUSIKA LEHIAKETA barruan izango den kontzerturako. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio)

- Pili Fernandez Gonzalez (Bergara)
- Josu Ibabe Madinabeitia (Eskoriatza)
- Araitx Arregi Agiriano (Oñati)
- Xabier Larrea Zubizarreta (Aretxabaleta)

Bi sarrera abenduaren 2an ELGETAKO ESPALOIAn izango den LEO BASSIren *La revelación* ikuskizunerako.

- Jabier Armendia Martinez (Arrasate)

109 zozketako sariak



PAMIELA

argitaletxeko liburu sorta bat

- Gonbidapen bat Donostiako AQUARIUMA bisitatzeko. (Saridunari bi emango zaizkio).

Baldintzak

- Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51
09:00etatik 18:30era.

Harpidetza kuota:

5 euro
2006 bukaera arte.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



KONTSUMO ARDI
GUZTION ZEREKI
CONSUME CON SI
RESPONSABILIDA

JOSETYO ARANTZABAL

Informazio orriekin batera, erosketak egiteko poltsak banatu zituen Juanra Artola hezitzaileak zapatuan Bergaran.

Modu arduratsuan kontsumitzeko kanpaina hasi du Mankomunitateak

Gure kontsumo-ohiturak aztertzeke eta hobetzeko aholkuak emango dituzte herriz herri; eta gida bat prestatzen ari dira

Monika Belastegi

Kontsumo arduratsua guztion zeregina eta onura delako, modu arduratsuan kontsumitzeko kanpaina hasi zuen egubakoitzean Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuak. Arrasaten hasi zuen kanpaina eta zapatuan Bergaran izan ziren. Hala, informazioa kalera atera eta, herriz herri, ibarreko herri guztietara zabalduko dute. Herri bakoitzera egun bat edo bitan hurreratuko dira, azoka eta plaza nagusietara, eta han informazio euskarriak jarriko dituzte irudi eta mezuekin. Horrekin batera, hezitzaile bat egongo da -Juanra Artola- herri-tarrei informazioa banatzeko eta izan ditzaketan galderei erantzuteko.

Hori egin daiteke eraginkortasunari begiratuta etxetresna elektrikoak erostean; autoa gutxiago erabiltzen saiatzea da laugarren aholkua. Esaterako, distantzia laburrak oinez edo bizikletaz eginda, garraio kolektiboak erabilia edo autoa pertsona gehiagorekin partekatuta; azken aholku gisa, ura zentzuz erabiltzea gomendatzen dute, eta beharrezkoa dena bakarrik erabili.

INFORMAZIO GIDA BAT ERE KALERATUKO DUTE

Gabonen inguruan aterako dute eta etxez etxe banatuko dute. Hondakin gutxiago sortzeko informazioa jaso du.

Egitaraua

ARRASATE

- **Abenduak 1:** Seber Altube plazan (eguraldi txarrarekin Kontzejino kalean), 10:00-13:00.

BERGARA

- **Abenduak 2:** San Martin plazan, 10:00-13:00.

ARETXABALETA

- **Azaroak 27:** Gernika plazan, 10:00-13:00.

ELGETA

- **Abenduak 11:** Mendizaleen plazan, 10:00-12:00.

ESKORATZA

- **Abenduak 15:** Azoka ondoan, 10:00-11:15.

ANTZUOLA

- **Abenduak 15:** Azoka ondoan, 11:45-13:00.

OÑATI

- **Abenduak 16:** Foruen plazan, 10:00-13:00

Espainiako Auzitegi Nazionalak ez du ikusi deliturik SAren abestietan

Soziedad Alkoholika taldeko kideak errugabetzat jo ditu, eta AVTren argudioak ezeztatu

M.B.

Soziedad Alkoholika taldeko musikariak eta managerra errugabetzat jo ditu Auzitegi Nazionalaren Zigor Aretoak. Hain justu, haien abestietan agertzen diren hitzak "ezin direlako delituztat hartu". Modu horretan, AVTk aurkeztutako argudioak ezeztatu egin dituzte epaileek eta biktimen aurkako mespretxurik ez zitekeela sumatu ondorioztatu dute. Izan ere, AVT elkarteak bi urteko kartzela-zigorra eskatu zuen taldeko kideendako, hainbat abestietan terrorismoa gorai-patzeaz akusatuta. Horrekin batera, fiskalak urte eta erdiko

eskaria egin zuen; baita bi urtez abesteko debekua eskatu ere.

Fernando Etxabbarri taldeko manager bergararrak adierazi duenez, pozik daude epaileek hartutako erabakiarekin: "Gureak amaiera ona izan du; orain, epaitzen ari diren beste hainbat lagunek gurea bezalako amaiera izatea nahiko genuke. Azken batean, gurea bezalako zentzugabeak dira-eta euren epaiketak". AVTri dago-kionez, "helegitea aurkeztuko dutela irakurri dut medioren baten eta pentsatzen dut egurra ematen jarraituko dutela", dio Etxabarrik. Hala eta guztiz ere, "honezkerok zeregin handirik izango ez dutela ere uste dut", gehitu du.

Eurek, behintzat, argi dute euren zeregina musika egitea dela eta bide horretan aurrera egingo dutela: disko berria prestatzen dihardute eta urtarrilerako edo otsailerako DVDa kaleratuko dute.

• EMAKUMEEN AURKAKO TRATU TXARREN AURKAKO EGUNA



ARANTZAZU EZKIBEL

HARREMAN EGOKIEN ALDE ARRASATEN

Zapatuan, emakumeen kontrako tratu txarren aurkako egunean, elkarretaratzea egin zuten herritar ugari Arrasateko plazan, Emakume Txokoak antolatuta. *Berdintasunaren alde bazaude, egizu harreman egokien alde* lelodun pankartaren atzean gizon zein emakume batu ziren. Elkarretaratzea amaitutakoan firma bilketa ere egin zuten euskal zaintza-sistemaren alde.

KONTSUMO-OHITURAK HOBETZEKO AHOAK

Bost dira Mankomunitateak ematen dituen aholkuak: batetik, bertan ekoiztutako produktuak, elikagai freskoak eta denboraldikoak kontsumitzea aholkatzen du; bestetik, zabor gutxiago sortu behar dela dio. Horretarako, komeni da erosketak egiterakoan hondakin gutxien sortuko duten eta berrerabiltzeko edo birziklatzeko egokienak diren produktuak aukeratzea; hirugarrenik dio energiaren kontsumoa ere murriztu behar dela.

TOKI ALAI TABERNA

Karajiloetan espezializatua

Tel.: 943 71 47 29
ESKORATZA

Joseba Sarrionandia



Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak

Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak.

Joseba Sarrionandia

Edizio zuzendu eta eguneratua Bernardo Atxagaren hitzaurrea

288 orr. - 19 euro

"Joseba Sarrionandiak burututako bilduma honetan barneratzen den irakurleak lagun baten hurbiltasuna sentituko du lehen orrialdeetatik..."
Bernardo Atxaga

PAMIELA argitaletxea

BASABE jatetxea



Basabe bidea z/g
Tel.: 943 77 07 94
Aretxabaleta



JOSETXO ARANTZABAL

Dozenaka herritarrek eskatu zuten, Bergarako kaleetan, Euskal Herriaren kontrako errepresioarekin amaitzeko.

Aste bukaeran batu dituzte lehenengo autoinkulpazioak

Kanpaina datorren astean aurkeztuko duten arren, zapatuan mahaia jarri zuten plazan, Askatasunak deitutako bilkurarekin bat eginez

M.B.

Dozenaka lagunek egin zuten bat zapatuan 18/98 epaiketaren kontra Bergaran egindako manifestazioarekin. Askatasunak deitutako manifestazioan, *Euskal Herriaren aurka epaiketarik ez!* leloa zabaldu zuten herrian barrena.

Askatasunaren iritziz, ez da bateragarria "Euskal Herriak nahiz euskal herritarrok jasaten

dugun gerra estrategia gaur egungo egoera politikoarekin".

Askatasunak azaldu bezala, "bada urte bat Euskal Herriaren aldeko militantzia politikoa bortizki epaitzen ari direla", baina nabarmendu zuen "ez dela lehen aldian militantzia epaitegi arrotzetan epaitzen dutena". Bestalde, epaitegiok "Euskal Herriaren kontrako estrategia errepresiboaren laborategi" gisa jo zituen.

AUTOINKULPAZIOAK

Autoinkulpazioak batzeko mahaia ere jarri zuten 18/98+ lantaldeko kideek San Martin plazan, nahiz eta datorren astean aurkeztu eta abiaraziko duten autoinkulpazio kanpaina gurean. Lantaldeko kideek azaldu dutenez, "urtebete pasa da epaiketa hasi zenetik eta eskubide zibil eta politikoen urraketak bere horretan dirau. Eskertu beharreko elkartasun uholdea izan da Euskal Herrian, baina orain urrats berriak egiteko garaia iritsi da". Hain justu ere, batutako autoinkulpaziook Auzitegi Nazionalera eta Estrasburgoko epaitegira bidaliko dituzte.

• NAGUSIENDAKO EGUNEKO ZENTROAK



TXOMIN MADINA

OÑATIKO EGUNEKO ZENTROAK ISO 9001: 2000 ZIURTAGIRIA JASO DU ASTEON

Eguenean jaso zuen eta bere zerbitzuaren kalitatea errekonozitu du modu horretan AENOR enpresak. Hain justu ere, adineko pertsona dependente eta autonomoei osasun-arretan, arreta psikosozialean eta zerbitzu orokorretan ematen dien zerbitzuaren kalitatearengatik jaso du. 21 laguni egiten die arreta eta Gipuzkoan ziurtagiria jaso duen ezaugarri horietako bosgarren egoitza da. Irudian ikusten denez, zentroko langileek, arduradunek eta Oñatiko alkate Lourdes Idoiakak pozik jaso zuten ziurtagiria Aldundi-ko ordezkariaren eskutik. Hain justu ere, Jose Luis Madrazo Gizarte Politikarako diputatuaren eskutik.

Bolu eta Zabalotegiko bizilagunak pozik mahai inguruaren erantzunarekin

Bergarako Arau Subsidiarioen gainean berba egiteko alderdi politikoekin mahai ingurua egin dute

A.G.

Bolu eta Zabalotegiko auzotarrak osatzen duten plataformak Bergarako Arau Subsidiarioen gainean berba egiteko mahai ingurua antolatu zuten eguenean. Arau Subsidiarioek herriaren garapenean duten garrantzia kontuan izanda, arauok hobeto ezagutu, ulertu eta haien gainean herritarrek izan ditzaketen zalantzak argitzen saiatzeko antolatu zuten ekitaldia. Horretarako, herriko alderdi politiko guztiak gonbidatu zituzten mahai ingurura, baina Bergara Aurrera, Aralar, Ezker Batua eta alderdi sozialistako ordezkariak baino ez ziren joan.

Antolatzaileak oso pozik daude mahai inguruak izandako erantzunarekin -herritar ugari batu zen- eta oso eskertuta joandako alderdietako lau kideekin. Bestalde, faltan bota zituzten EAJ eta EA alderdiko ordezkariak. Antolatzaileen esanetan, "eurak dira Arau Subsidiarioak onartu dituztenak gainerako alderdien laguntza barik eta herritarren iritzia kontuan hartu barik. Horregatik, aukera paregabea galdu zuten euren jarrera azaltzeko".

Antolatzaileek esandakoaren arabera, oso baliagarri egin zaie politikariengandik entzundakoa, "gure arazo zehatzaren gainean -bi noranzko errepedea egin nahi dute euren auzotik- aurrera begira jarraitu beharreko bidea aztertzen lagundu digulako; bestalde orain arte egindakoa -auzotarrak batu eta mobilizatu, besteak beste- ondo egin dugula jakiteko ere balio izan digu". Ondorio bat ere atera zuten: "Benetako beharrak kontuan hartuta baino, bestelako interes batzuk oinarri hartuta egin direla Arauok.

Ed Freyfogle eta Iban Zaldua, 'Sustatu'-ren urteurren jaian

Abenduaren 13an Arrasateko kultura etxe berriko klaustroan egingo dute 5. urtemuga ospatzeko ekitaldia

A.G.

Ed Freyfogle Yahoo-ko bilaketa arduraduna izandakoak eta Iban Zaldua 2006ko Euskadi Literatur saridunak hitzaldia egingo dute *Sustatu* weblogaren urtemugaren harira antolatu duten ekitaldian. Bosgarren urteurreneko ekitaldia abenduaren 13an izango da, Arrasateko kultura etxe berriko klaustroan, 18:30ean. Internetez eta harekin lotutako beste hainbat gauzatzaz berba egingo dute bi hizlariak; izan ere, bost urtez Interneteko euskarazko aktualitatearen isplu izan den medioaren urteurrenean, hausnarketarako aukera emango duten zertzelada batzuk jaso nahi izan dituzte hitzaldiarekin antolatzaileek, batik bat bi hizlarien ibilbideak kontuan hartuta.

SARIKETA ANTOLATU DUTE *Sustatu*-ren 5. urteurrena ospatzeko egingo diren ekitaldien

artean sariketa ere antolatu dute. Hala, abenduaren 11ra bitartean, euskarazko blogosferan argitaratzen den blog mezu edo antzeko eduki interesgarriena sarituko dute. Baldintzak dira: blog euskaldun batean egon beharko du artikuluak, eta euskaraz; argazki-blog hutsen eta bideo-blogen kasuan, euskarazko blog komunitate batean edo blogak sortzeko plataforma euskaldun batean egon beharko du. Bestalde, edonork parte hartu ahal izango du, baina blogari bakoitzak gehienez hiru mezu aurkeztu ahal izango ditu. Epaimahaia Code&Syntax-eko eta Goienako partaideen artean osatuko da eta erabakia abenduaren 12an hartuko dute. Sari bakarra egongo da, iPODa (80 Gb) eta abenduaren 13ko ekitaldian jasoko du irabazleak. Horrekin batera, aurkeztutako gainerako guztien artean, bi iPod Nano (2 Gb) zozketatuko dira. Informazio gehiago, hemen: www.sustatu.com.

Saritu egingo dute abenduaren 11ra arte argitaratzen den eduki onena

Alfonso Sastre Kultur Elkarteak antolatutako gogoeta eta eztabaida jardunaldien barruan izan zen Hector Soto politikari venezuelarra Bergaran

egubakoitzean. Chavezen gobernuko Kultura ministro-orde ohia eta gaur egun Ministerio horretako kabinetearen zuzendaria da. Utopiaz, ezkerren

berpizteaz eta historia berriaz mintzatu zen Hector Soto osoko bilkuren aretoan. Venezuelan, gainera, hauteskondeak izango dira datorren domekan.

HECTOR SOTO | VENEZUELAKO GOBERNUKO KULTURA KABINETE-ZUZENDARIA

"Sozialismotik demokrazian eraiki daitekeen herrialdearen beldur dira"

Jon Berezibar

Azken zundaketek datorren domekako presidentetza-hauteskundeetan Chavez ematen diote garai-pena berriz botoen %54rekin eta Rosales %27arekin geratuko da. Zer deritzozu?

Zifra hori guztiz bat dator orain arte egindako hainbat inkesta pribaturekin. Oposizio-arekin esku zabalenak diren zundaketek ere 20 puntuko aldea ematen diote Chavez Rosalesen aurrean. Edonola ere, Chavezen onarpen-mailak ia %60an jarraitzen du, agintean zortzi urte egin eta gero. Hori historikoa da; izan ere, Europan ez dakit zelan izaten den hautesleriaren jokaera, baina Latinoamerikan harrizkoak izaten da bost urteren ostean presidente batek boterean segitzea.

Azken legegintzaldiaren ze balantze egiten duzue?

Bikaina, eta ez dut gobernuaren funtzionario bezala planteatzen. Edonori egingo nioke gobernu bolibardarrarenak ez diren zifrak bilatzeko gonbita, eta ikus dezala. UNESCOk analfabetismo gabe herrialde moduan aitortu gaitu, urtebetean milioi eta erdi lagunetik gora alfabetatu genituen. Biztanleriaren desnutrizio mailak zazpi puntu egin du behera FAOren datuen arabera.

Zer gai geratu dira zintzilik, datoren legealdian sakondu nahiko zenituzketenak?

Aurrerapen handia egon da hezkuntza eta osasun alorretan, baina ezin daiteke berdina esan pobrezia aurka egindakoarekin. Iraultza oraindik zordun da nekazaritza garapen kontuetan, asko daukagu egiteko osasunean, ekonomian, petrolioaren mendekotasunean... Baina aurrerapenak ere handiak izan dira. Azpiegitura lan itzelak egin ditugu, nahiz eta Europatik oso garrantzitsuak ez iruditu. Lau metro egin ditugu lau hiri handitan, trenbide garrantzitsuak eraiki dugu, lau estaturen arteko zubi bat, ospitaleak... Baina ezinbestekoena beti da gizarte arloa. Esan bezala, Chavezek lehen aldiz hautatua izan zeneko onarpen-maila bera dauka; izan ere, Venezuelako herriaren esperantzak bete egin ditu eta asmoetan baino gehiago, erreallitateetan bizi gara. Herria ez dago prest eskuinari elikatze, osasun edo hezkuntza kontuetan lortutakoak emateko. Lorpena da ere venezuelarra itxaropenak

dituen pertsona dela orain, hiritartzat du bere burua, maila subjektiboan garrantzitsua dena. **Europatik sarri zaila izaten da Venezuela moduko herrialde barruko lana ikustea. Batez ere hedabideetatik zerbait heltzekotan Chavezek Bushi esandako azken astakeria besterik heltzen ez denean.**

Venezuelak kanpotik duen pertzepzioa hedabide multinazionalek kontrolatzen dute, nahi bezala erreallitatea itxuraldatuz. Eta ez dute hori egiten uste dutelako Chavez gaiztoa dela edo oker dabilela, baizik eta arrisku moduan ikusten dutelako. Herrialde bat sozialismotik demokrazian eraiki ahal izatea ikusten dute arrisku moduan; interes kapitalistek egindako eraso moduan ulertzen dute. Europan hiltzen dena piramide egitura duen hedabideen antolakuntzatik dator.

Eta venezuelarrok zelan ikusten duzue zuen herrialdea nazioartean?

Oso garbi daukagu Latinoamerikan integrazio politika egin behar dugula. Latinoamerikako Merkataritza Librearen Barrutiaren planteamendu bidegabeko eta basatiaren aurrean gainontzeko nazioekin elkartruke sistema bultzatzen dugu; ez merkatu-berdintasuna, baizik eta merkatuen arteko osagarritasuna sustatuz. Gizon indartsu batek eta ahul batek eskubide berak dituztenean beti irabaziko du indartsuak, baina osagarriak direnean, hau da, batek petrolio badu eta bestearekin janaria trukatzeko badu, bidezkoagoa da. Kubak medikuak dauka, adibidez, eta guk haien indar hori elkartruke dezakegu, elkar osatuz. Oso politika arrakastatsua izan da. Argentinako Kirchnerrekin harremana ezin hobea da, Lularekin bikai-



JOSETXO ARANTZABAL

Hector Sotos, Bergarako udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

nak dira hartu-emanak, Kubarekin elkartrukea oso handia da... Integratzen ez bagara, erraldoiek irentsiko gaituzte.

Kooperazio horrengatik nazioartean mailako blokeoaren beldur zarete, batez ere AEBen aldetik?

AEBak gobernatzen dituen sekta horrek zer egin dezakeen aurrean ezina da. Ezin daiteke analisi politikorik egin, ze ezin baitaiteke iragarri ero bat non-

dik ora daitekeen. Blokeoa posible da? Bai. Inbasioa posible da? Bai. Gerra posible da? Bai. Baina ziur egon daitezke guk gure bizitzekin defendatuko dugula gure prozesua.

Utopiaz eta ezkerrez hitz egitera etorri zarete. Ezkerreko utopian bidearen eredu izan daiteke Venezuela?

Askok gustatu zait Alfonso Sastrek idatzitakoa irakurtzea.

Alfonso egiten duen utopiaren definizioa asko gustatzen zait, ze utopia ez baitu ezinezkoen lekuan kokatzen, baizik eta ametsi dagoen ekintza gida moduan baizik, egingarria dena. Galdera bada ea Venezuelako prozesua postmodernismoaren aurrean sortutako utopien berpizkundera kokatzen duan, bai noski!

Eta kultura kabinetearen zuzendari moduan, zein da kulturaren lekua utopia horietan?

Guretzat iraultza ez bada kulturala, ez da iraultza. Administrazioan, kultura-politikan... Kulturaren mundu guztiak balioak landu behar ditu, gizaki moduan, etikaren alorrean, elkartasunezko giza harremanetan dirutik haratago; gizaki berri baten erai-kuntza funtsean. Gizaki berriak ekologia zaindu behar du, genero-arekiko arduratsua izan behar du eta solidaritatearen bitartez erlazioan behar du hurkoarekin. Aparatu kulturala ez dira Arte Ederrak bakarrik, guztia ukitzen du.

Pentsamendu kritikoa ere izango duzue hizpide. Euskal Herriko egoeraren berririk baduzu?

Zaila egingo litzaidake benetako apreziazioa egitea, informazioa falta zait eta arduragabea litzateke horrela iritzia bat ematea, baina guk guztiz errespetatzen dugu herrien autodeterminazioa. Badaude kointzidentziak. Konstituzio bolibardarrak komunitateen autonomia aitortzen du. Venezuelan 34 etnia indigena ditugu eta ikasketa plan guztiak, adibidez, haiek diseinatzeko euren mundu-ikuskeraren arabera.

Autodeterminazioaren alde egin zuten Bergaran

Hector Sotoren hitzaldia bezala, ezker abertzaleak antolatuta, ekitaldia izan zen Bergaran. *Euskal Herriak autodeterminazioa* lelopean, Aitor Arantzabalek berba batzuk egin zituen. Bake prozesuak bizi duen momentu zaila nabarmendu nahi izan zuen eta "bakeak justiziarekin lotuta" joan behar duela gaineratu. Ezker abertzaleak eguneroko lanean ikusten du giltza eta horretarako mahai baten osaketa aldarrikatu zuten.



Albiste izango da

DEBAGOIENA | ABENDUAREN 3AN DA EGUNA

Asteon hasiko dira ekitaldiak
Euskararen Egunari begira

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna da. Horren hari-
ra, ekitaldi ugari antolatu dute ibarreko euskara elkarte eta tal-
deek. Herrietako batzuek abenduaren 3rako antolatu dituzte eki-
taldiak; Arrasatek eta Eskoriatzak, besteak beste. Bergarari dago-
kionez, asteon hasiko dira ekitaldiak: astelehenetik barikura
bitartean, DBHko ikasleen artean *Euskaraz bizi, is beri isi* lelo-
dun erregelak banatuko dituzte. Horrekin batera, eguen eta bari-
ku bitartean herriko ikastetxeetako ikasleek egindako margoak
zintzilikatuko dituzte ikastetxe bakoitzaren kanpoan.

ARRASATE | ATXAGAK HITZALDIA EGINGO DU

Hainbat ekitaldi Arizmendiarrietaren
heriotzaren urtemugaren harira

Arizmendiko Gizabidea Fundazioak bi ekitaldi antolatu ditu On
Jose Maria Arizmendiarrieta hil zeneko urteurrenaren harira:
eguztenez 30 urte beteko dira. Hala, hura eta haren pentsa-
mendua gogora ekartzeko ahaleginean, bi ekitaldi antolatu
dituzte. Lehenengoa eguztenez izango da, 19:00etan, Arrasa-
teko San Juan Bataiatzailearen parrokiari. Meza horretan par-
te hartuko du On Jose Mariaren jaioterritik, Lea-Artibatik eto-
rriko den Lekeitioko parrokiako abesbatzak eta, haren omenez,
Jose Ramon Barbarias kooperatibistak konposatutako *Kresala*
meza abestuko dute. Eguenean, berriz, Bernardo Atxagak *Eus-
kal Hiria* izango du berbagai, 18:30ean, Eskola Politeknikoan.

BERGARA | MODA DESFILEA EGINGO DUTE JAM ARETOAN

Kilometroak'07ko logoa eta leloa
aurkeztuko ditu Aranzadik barikuan

Bergarako Aranzadi Ikastolak du datorren urteko Kilometroak
jaia antolatzeko ardura. Dagoeneko buru-belarri jarrita daude
zeregin horretan, eta lehenengo ekitaldiak astean egingo dituz-
te. Batetik, prentsaurrekoa egingo dute etzi, Donostian, Aranza-
di ikastola ezagutzera ematearekin batera Kilometroak'07rako auke-
ratu duten leloa eta logotipoa aurkezteko. Bestalde, barikuan jaia
egino dute Bergarako Jam aretoan eta horixe izango da, hain
justu, aurkezpen gisa erabiliko dutena, eta urtean barrena egin-
go dituzten gainerako ekitaldietako lehenengoa. Jai horretan moda
desfilea egingo dute Kilometroetako arropa erakusteko eta leloa
eta logoa ere erakutsiko dituzte. Bergarako Barrenkalea 44an ego-
kitutako denda egun horretan zabalduko dute.

BERGARA | ETZI IZANGO DA, KULTURA ETXEAN, 19:30EAN

Euskararen egoera kirolean
aztertuko dute mahai inguru baten

Euskara eta kirola uztartuko dituen mahai inguru antolatu du
Jardun euskara elkarteak. Etzi, hilak 29, izango da, 19:30ean, kul-
tura etxean.

Mahai inguruan parte hartzea gonbidatu dituzte herriko hain-
bat kirolari eta eskola kiroleko eta kirol elkarteetako ordezkariak.
Gonbidatuok Bergaran kirolaren arloan euskararen erabilera eta
egoera nola dagoen aztertuko dute. Era berean, zein hutsune naba-
ritzen duten azalduko dute eta irtenbideak aurkitzen saiatuko dira.
Herriarrei parte hartzea dei egiten diete.

ESKORIATZA | IBARRETXE ETORRIKO DA EKITALDIRA

Fagor Automatioren instalazio
berriak inauguratuko ditu etzi

Fagor Automatioren Optoelektronika instalazio berriak inau-
guratu ditu etzi, Eskoriatzan. Ekitaldian Juan Jose Ibarretxe
lehendakaria, MCCko Kontseilu Orokorreko presidente Jesus Cata-
nia eta Julen Busturia Fagor Automatioren zuzendaria egongo
dira, besteak beste. Instalazio berriak nazioarteko eta estatuko pun-
tako zentroekin garatu ditu Fagor Automatioren. Neurgailu opto-
elektronikoak egiten dituzte eta instalazio berriei esker lortu dute
neurgailuon doitasun maila nabarmen handitzea. Lortutako gara-
pena makina-erremintako automatizazio sistemetan aplikatzen
ditu gero Fagor Automatioren.

Hitzorduak

BEINKE ELKARTEAREN 20. URTEMUGA OSPATUKO DUTE ARETXABALETAN |
Dantza ekitaldia, txapelketa eta afaria dira antolatutako ekintza nagusiak

Beinke elkarteak sortu zutela 20 urte bete dira aur-
ten. Hori dela eta, Loramendi euskara elkarteak
honako ospakizunak antolatu ditu: batetik, afaria
abenduaren 15erako Taberna Berrin, eta gaur,
astelehena, da izena emateko azken eguna, euren
lokaletik pasatuta. 30 euro da.

Aspaldiko partetik, Beinke-Loramendi dantza egin-
go dute egun horretan. Azken entsegu egunean,
hilak 30, egingo dute. Dantza horrek adierazten du
Beinke desagertu egiten dela eta Loramendi sortu.
Gainera, ludotekako gaztetxoek antzerkia egingo dute,
eta pala txapelketaren finala ere jokatu da.

ANTZUOLA |

• Helduen ikasteko aukeren
gaineko hitzaldia

*Une guztiak dira onak ikaste-
ko* delako hitzaldia egingo du
Gloria Gonzalez psikologoak
etzi, eguztenez, Helduen Hezi-
keta Ikastetxean, 10:30ean.

• Alardearen gaineko ikerketa
sozio-kulturala egingo dute

Antzuolako alardearen iker-
keta sozio-kulturala egiteko
asmoaren berri emango du
Eusko Ikaskuntzak bihar, mar-
titzena, Olanan aretoan,
19:00etan. Alardeak, oroko-
rrean, aztertzeo programa
baten barruan dago.

ARETXABALETA |

• Lehen Jaunartzea egin
dutenen aita-amen batzarra

Aurten Lehen Jaunartzea egin
dutenen gurasoekin batzarra
egino dute etzi, eguztenez,
parrokiako lokaletan,
18:00etan.

ARRASATE |

• Arizmendiarrietaren
omenezko bi ekintza

Jose Maria Arizmendiarrieta
hil zela 30 urte dira etzi, eguz-
tenez, eta bi ekintza antolatu
ditu Gizabidea fundazioak:
meza berezia parrokiari (etzi,
eguztenez, 19:00etan) eta Ber-
nardo Atxagaren hitzaldia
(egunean, hilak 30, eskola poli-
teknikoan, 18:30ean).

• BAZera eraman daitezke
galdutako gauzak

Gauza galduen bulego zerbi-
tzua dute BAZen. Denetarik
daukate: betaurrekoak, erlo-
juak, giltzak, arropak, bitxiak,
Maritxu Kajoin galdutakoak...
Zerbait galdu duenari dei egi-
ten diote han galdetzeko.

• Justiziarako eta

Elkartasunerako plataforma
Justizia eta Elkartasunerako
iniziatibaren gaineko hitzaldia
egino du Mikel Isasik egue-
nean, Monterronen, 19:00etan.
Kanpo zorra kentzea, industria
militarra ezabatzea... eskatzen
dute.

• Nortasun Agiriak egitera
etorriko dira bihar

NA egitera etorriko dira bihar,
martitzena. Joan den hilean
eta hil honetan txanda hartu
zutenek egun horretan egingo
dute agiria.

BERGARA |

• 1976an jaiotakoek batera
bazkalduko dute

Herriko alargunen elkarteak
bazkaria egingo du abendu-
aren 8an. Izena eman daiteke
elkartean bertan.

• 1960an jaiotakoek batera
afaltzeko aukera dute

1960an jaiotako bergararrek
afari batekin ospatuko dute
urteurrena abenduaren 2an
Zabala jatetxean. Zabala taber-
nan eman daiteke izena.

DEBAGOIENA |

• Baserrian erabilitako
plastikoak jasoko dituzte

Baserrian erabilitako plasti-
koak jasoko ditu Deba Garaia
landa garapenerako elkarte-
ak bihar, martitzena. Ohiko
lekuetatik pasatuko dira. Argi-
bideetarako, deitu 943 76 25 47
telefono zenbakira.

• Zuberoako ikastolen

Gabonetako otzarak, salgai
Zuberoako bi ikastolak egin-
dako Gabonetako otzara eros-
teko aukera dago. 35 eta 48
euroko otzarak daude auke-
ran. Argibideak, 943 79 20 24
telefonoan edo *mendibitzu*
@euskalnet.net e-posta helbi-
dean.

OÑATI |

• Markelen Lagunartiarren afaria
antolatu du zapaturako

Denboraldi amaierako afaria
antolatu du Markelen Lagu-
nartiarren abenduaren 2rako,
zapatua, Zotz jatetxean. Izena
emateko azken eguna duzue
gaur, astelehena, Aloña, Iza-
rraitz, Aker, Oñati eta Zotz
tabernetan.

• Mendiko eta eskiko
materialaren azoka dago

Mendiko eta eskiko materia-
laren azoka ipiniko du Aloña
Mendik gaur, astelehena, hasi
eta etzira, eguztenez, bitarte-
an euren egoitzan, 19:00-21:00
ordutegian.



NON JARRIKO DUT NIRE ETXEAREN LEHEN HARRIA?



HEMEN

kutxako Etxebizitza Kontuan

Zuretzat asmatutako kontua: bera duzu zure etxearen lehen harria.

Zure neurrira egina: zuk erabakitzen duzu noiz eta zenbat aurreztu. Errentagarritasun handia. Erabateko erabilgarritasuna. Komisionik gabe. Gure Etxebizitza Zerbitzuaren laguntza osoarekin. Eta onura fiskalik handienarekin: kontua abenduaren 31 baino lehen irekiz gero, zergarinketa ahal izango duzu egin zure hurrengo Errenta-Aitorpenean.

Informa zaitetz dituen abantaila guztiez zure **kutxa** bulegoan, edo, nahiago baduzu, www.kutxa.net-en. Eta jar egiozu lehen harria zure etxeari.

Gainera, 06/11/20tik 06/12/31ra bitarte egindako irekieretan, baldin hasierako sarrera 3.000 eurotik gorakoa bada, MP4 bikain bat eramango duzu opari.



ETXEBIZITZA-ZERBITZUA

Etengabeko laguntza. Hasi eta buka.

Iritziak



Isilpekoak

943 25 05 02
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Kartoiak kontainerretik kanpo

Irakurle batek kritikatu egin gura du kaleko kartoi eta paper kontainerretan "jendeak eta batez ere dendariak" kaxa eta paperak kanpoan uzteko duen ohitura: "Batez ere haizea ibili den egun hauetan lotsagarria izan da; kontainerrak dauden kaleetan paper eta kartoiak hegaz egiten, eta kale guztia zaborrez beteta". Arrasateko Seber Altuben bizi da irakurlea eta hark dio egun hauetan plaza kartoiz beteta egon dela "eta jendea arduratu ere ez dela egiten horiek dagozkien kontainerretan sartzen". Gehitzen du asko inguruetako dendariak direla, produktuen kaxak direlako gehienak. Kexarekin haiek kontzientziatu eta ardura hartzeko eskatzen du irakurleak ez delako bere kalean bakarrik gertatzen.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Sarean harrapatuta

Auto-ilarak sortzen dituzten gidariak zigortuko dituzte

Auto-ilara asko sortzen dira egunero Gipuzkoako errepideetan. Horri soluzio bat eman nahian, Gipuzkoako Diputazioko Bide Azpiegiturarako diputatuak, Javier Zuria-rrainek, adierazi du adierazi du salaketa

jarriko dutela auto-ilarak sortzen dituzten gidariaren aurka. Auto-gidariengan eztabaida sortu du gaiak. *Goiena.net*-en jarri dute horren gainean eztabaidatzeko lekua. Hemen bertan jasotako iritzi batzuk.

EZ DAKITE ZER GEHIAGO ASMATU DIRUA EGITEKO

Hori bakarrik falta zitzaigun! Trafikokoek ez dakite zer asma-tu dirua ateratzeko. Orduan, berri honek zer esan nahiko luke? Nik istripu bat izaten badut eta trafikoa pilatzen bada isuna jarriko didate zirkulazioa oztopatze-arren? Bueno-bueno... ez dakit baina hala bada neurriak hartu beharko dira.

Miren / www.goiena.net

GIDABAIMENA KENDUKO NIEKE ZENBAITI

Ez dut uste horrenbestera izango denik. Dena den, errepidean badaude isuna baino betirako baimena kenduko niekeen asko. Azkar joatea ez da zuzena baina 40 kilometro orduko abiadura normal batean ere... Ez dut uste oso zuzena denik.

Patxi / www.goiena.net

LANEK ERE SORTZEN DITUZTE ILARAK

Eta zer gertatzen da auto-ilarak sortzen dituztenean errepideko lanek? Orduan ere salaketa jarri ahal izango da?

Aitor / www.goiena.net

AUTO-ILARAK EZ DIRA NAHITA SORTZEN

Lotsagarria da egin nahi dutena. Zer uste dute, nahita sortzen dire-

la auto-ilarak? Ez daukate lotsarik. Nik derrigortuko nituzke agintari horiek denak garraio publikoan ibiltzera. Horrela ikusiko lukete benetan zelako beharrik dauden errepidean. Zerbait egingo lukete orduan auto-ilarak gutxitzeko...

Transporte / www.goiena.net

EZ DA ZIGORTU BEHAR ISTRIPUA IZAN DUENA

Kontua ez da isuna jartzea istripua izan berri duen bati. Baizik eta arau hauste bat egiten ari den

batek zirkulazioa oztopatzea eta eragozpenak eragiten baditu zigortzea. Hau da, poltsikoko telefonotik hitz egiten ari den bat oso geldi badao, horri isuna jartzea.

Trafiko zuz. / www.goiena.net

EZ DA LOGIKOA ARAU HORI JARTZEA

Nik ez dakit kontua nola den garbi, baina ez da logikoa auto-ilarak sortzen dituztenak epaitegira eramatea. Telefonotik berba egiten dagoenarendako bakarrik ez dut uste izango denik.

Ainhoa / www.goiena.net

OHITURA TXARRAK DITUGU GIDATZERAKOAN

Egia esan asko izaten dira bide ertzean gelditzen direnak edozein gauza egiteko, baten bat uzteko, adibidez. Horrelako ohiturak ez zaizkit oso onak iruditzen, baina ez dut uste horiek zigortzeko modukoak direnik.

Haritz L. / www.goiena.net

KONTUA EZ DAGO GARBI ETA ITXARON BEHAR DA

Kontu hau ez dago oso garbi. Norzuk zigortu behar dituzte? Gidariak bakarrik ala errepidea oztopatzen duten guztiak? Basurde bat errepidera irteten bada eta harrapatzen badut? Itxaron egin beharko da azalpenak eskatzeko.

Leire / www.goiena.net

www.goiena.net

Ondo iruditzen zaizu auto-ilarak sortzen dituzten auto-gidariak zigortzea?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo www.goiena.net webgunera

Halaxe erantzun digute

Lan-gaixotasunen zerrenda luzatu dute eta kanpoan geratu dira gaixotasun psikosozialak. Zer deritzoazue



EGOITZ ITURBE |
ELA SINDIKATUA

Patronalak eta administrazioak horri dagokionez interes berak dituzte: ekonomikoak. Ondo dakite gaixotasun profesionalak zerk eragin eta zergatik gertatzen diren, eta oso ohikoak diren gaixotasun asko eta psikosozialak kanpoan geratu dira, bestelako interesik ez dagoelako.



LEIRE ORMAZABAL |
LAB SINDIKATUA

Aukera galdua izan da kanpoan geratu direlako lanaren ondorio izan daitezkeela "susmatzen" diren gaixotasun asko, tartean psikosozialak direnak. Ez dira garbi geratu ere Osakidetza eta lan-autoritatearen arteko erlazioak, ez eta medikuek nola notifikatu behar duten ere.



PILAR ETXANIZ |
STEE-EILAS SINDIKATUA

Gurean lehen eragile moduan estresa dago eta diagnostikoetan ez da zuzenean lan-gaixotasun moduan ikusten, eta haziz doa. Gaixotasun profesionalen barruan ez sartzea atzerapausoa da. Gainera, irakaskuntzan oraindik ere lan-gaixotasunen aldarrikatze kultura falta da.



INAZIO LARRAÑAGA |
BERGARAKO LANBIDE HEZIKETA

Titulazioen barruan oinarritzko prebentzioaren ziurtagiria ematen hasi gara, langileek bete beharreko legeak eta hartu beharreko neurriak ezagututa asko murrizten dira eta gaixotasunak eta istripuak. Enpresak ere behartuta daude formazio hori ematera, hala eta guztiz ere.

Egunkarietako harribitxiak

JATEAGATIK ERRUDUN

Anorexia eta bulimia hazten ari diren patologia dira. Gaur egun neska nerabeen %4ri eragiten diete. Argaltasunaren kulturak harrapatu ditu, euren bizitza arriskuan jartzera arte. Irudiaren gizartearen ondorio dela dio hainbatek. Atzo, horren gaineko erreportajea egin zuen *El País Semanal* aldizkarian.



Culpables de comer

La anorexia y la bulimia son una patología emergente que afecta ya al 4% de las adolescentes. La mayoría son jóvenes inteligentes y de expediente académico brillante. Pero la cultura de la delgadez las ha atrapado hasta poner en riesgo su vida. Aquí contamos las interioridades de una enfermedad compleja fruto de nuestra sociedad de la imagen.

Por Miquel Pérez Oliva. Fotografía de Ana Noya

'El País'
2006-11-26

GERRARAKO ERE PREST

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko aeronautika indarrean dago. Arlo horretan aritzen diren enpresek, Hegan aeronautikako eta espazioko clusterrean batzen direnek, 756 milioi euroko fakturazioa izan zuten iaz; hau da, 2004an baino %8,15 gehiago, eta 5.348 laguni eman zieten lana. Arrakasta horrek, baina, badu beltzunerik. Talde antimilitaristek sarri salatu dute arrakasta horren zati bat armagintzan eta zenbait

egitasmo militarretan duten parte-hartzeari zor diotela. Hegan clusterraren 2005eko txostenaren arabera, Gamesa Aeronautica, Sener eta ITP dira aro militarrean egindako lanengatik gehien nabarmentzen diren enpresak. Besteak beste, Eurofighter gerra hegazkinaren eta Tiger helikopteroaren hainbat atal Euskal Herrian egindakoak dira.

'Berria'
2006-11-26



ARMATUAK
Irakurri informazioa

Tira, tira...



Tasio 'Gara' | 2006-XI-26

Egunkarietan irakurri dugu

'Gara'

IRAKEKO GERRA ALTERNATIBA BARIK

Inork ez dio alternatibarik ematen gerra egoerari. Gogor zigortutako herria da Irak. Ez bakarrik urteetako okupazioarengatik, baita 1990ean hasi zen zigorraldi ekonomikoarengatik ere. Zigorraldi horrek, gainera, osasun sistema porrotera eroan du. OMEk garbi esan du gaur egun hango herri-tarren osasuna oso ahula dela.

Editoriala
2006-11-26

'Berria'

UMEAK UME

Umeak maite ditugu eta eurengandik sakrifikaizeko prest gaudela esaten dugu. Dena dela, uka ezina da haurren aukako delituak ugaritzen ari direla gure artean. (...) Umeak mimatze eta eurengandik edozer egin zein gastatzeko prest gaude, baina, era berean, inoiz baino gehiago eskatzen diegu, eta inoiz ez bezalako presioa jartzen dugu haiengan.

Patxi Juaristi
2006-11-26

'Noticias de Gipuzkoa'

BOST DAGOENKO

Eurek, betiko eskumak, helburu garbia du-te. Kosta ahala kosta boterea berreskuratu nahi dute, nahiz eta gezurretan ibili beharra izan edo terrorismoaren biktimen minaren manipulazio lotsagarriaren atzean kamuflatu beharra izan. Terrorismoaren biktimen presidente Alcarazek PPrez zerbitzura dauden txotxongilo bilakatu ditu.

Editoriala
2006-11-26

'El Mundo'

HERRIAREN MATXINADA

Zapaterok ondorioak ateratzen hasi beharko luke kaleko presiotik. Herritarren matxinada dago, manifestazioaren deitzaileen esanetan, norabidea aldatzeko. Baina atzo Zapaterori eskatu zitzaiona ez da ez negoziatzeko, baizik eta ez errenditzeko, eta ñabardurak tartea lagatzen dio prozesua indarrean mantentzeko.

Editoriala
2006-11-26

Zorrozailea



Politikaren aldirietan

"Iruditzen zait politikaren tentazioa, gezurra esatea baino gehiago, asperdura sortzea dela, interesa galdu arterainoko asperdura sortzea".

Amelia Valcarcel |
Filosofoa eta feminista

'El País Semanal' |
2006-11-26

Elena Laka

Politikari guztiak ez dira gezurtiak, pertsona lodi guztiak zorionsuak ez diren bezala, euskaldun guztiak kantari onak ez diren bezala. Politika, nork definitzen duen arabera, "posiblearen artea" edo "gauzak aldatzeko tresna" izan daiteke. Ostera, guztiok egon gaitezke ados honetan: politikak gero eta interes txikiagoa sortzen du bazterretan. Dela talde batzuen hitz jokoen jario bihurtu delako, dela politikariak kaleko nahietatik urruti daudelako, dela arazo nagusienak konpontzen ez dizkigutelako. Interes txiki honen adibide: hautesleen ehuneko berrogeiak baino ez du botorik ematen, herritar arrunta eguneroko jardunean arazo politikotik at bizi da, baita gurea bezalako ustezko gizarte politizatu batean. Zenbat eta boterearen ingurutik urrunago egon, gero eta urriago politikak sortzen

duen interesa. Boterearengandik urruti egon diren neurrian, emakumeek tradizioz interes txikia izan dute politikan.

Hain zuzen, boterearen ingurutik aldentuta egoteagatik, pentsatzen du Ahotsak elkarteak emakumeek bake eta normalizazio prozesuan zeresana izan dezaketela. Hain zuzen, emakumeak oro har erabakiguneetatik urruti daudelako, jarduteko eta ekiteko askatasun handiagoa daukatela. Eta beraz horrexegatik adostasunetara iristeko ahalmen handiagoa daukatela.

Momentuz adostasuna lortu duten bakarrak erabaki guneetatik urrun, jendearengan asperdura ez sortzea helburu, politikaren aldirietan kokatutakoak izan dira. Ea zer egiten duten politikariek.

"Herritar arrunta eguneroko jardunean arazo politikoetatik at bizi da, baita gurea bezalako ustezko gizarte politizatu batean"

"Boteretik aldentuta egoteagatik, uste du Ahotsak taldeak emakumeek bake eta normalizazio prozesuan zeresana izan dezaketela"

KIROLA

- Mendizabal eta Etxeberria DV txapeleketako finalerdietarako sailkatu dira | 19
- Mikel Galdosek 25. posutan amaitu du Peugeot Toureko finala | 19



Bixente Pagaldai
atleta beteteranoak
29. aldiz egin zuen
atzo Donostiako
maratoia | 21

PREFERENTE MAILAKO FUTBOL TALDEAK

HONDARRIBIA

0-3

MONDRA

Hondarribia | Amiano, Sanchez, Borja, Gaizka (Hodei, 65. min.), Rodriguez, Sagartazu (Berasalutze, 65. min.), Aritz, Xabier, Emazabel, Muñoz (Escribano, 25. min.) eta Irazusta (Jose Manuel, 65. min.).

Mondra | Ander, Kepa (markel, 55. min.), Andoni, Keixi, Laspiur, Rueda (Loiti, 42. min.), Losada (Illart, 75. min.), Arkaitz, Heriz (Argider, 77. min.), Lopez eta Aranbarri.

Golak: | 0-1, Iker Lopez (30. min.), 00-2, Julen Aranbarri (64. min.), 0-3, Julen Aranbarri (76. min.).

Epailea | Belmonte jauna. Aginaga eta Elustondo izan zituen laguntzaile.

Bikain

Taldearen jarrera

Hasierako hamaikakoan ohikoak diren jokalariek falta zituen arren, partidua jokatu zuten jokalariek jarrera bikaina erakutsi zuten zapatuko norgehiagokan

Kaskar

Lesioak

Ruben Ruedak eta Kepa Mercaderrek ez zuten partidua amaitu. Bi jokalariek zelaia utzi zuten, min hartuta; eta goiz da jakiteko Ordiziaren aurkako partidurako prest egongo diren edo ez

Esandakoak

"Oso pozik nago taldeak egin duen lanarekin. Baja batzuk genituen, baina taldeak jarrera bikaina erakutsi du".

"Gure helburu nagusia orain Atxabalpen partiduak irabaztea da. Premia handia dugu".

IGOR GORDOBIL |
MONDRAKO ENTRENATZAILEA



Ruben Ruedak min hartu zuen zapatuko partiduan; zelaia utzi zuen 42. minutuan.

ARTXIBOA

FUTBOLA | ETXETIK KANPO LAUGARREN PARTIDUA IRABAZI ZUEN ARRASATEKO TALDEAK

Mondra taldeak hiru puntuak ekarri zituen Hondarribiatik

Azken partiduen antzera, etxetik kanpo jokatura ekarri zituen puntuak Mondrak; zapatuan Ondartza futbol zelaian jokatu zuen

Mireia Bikuña

Preferenteko hamabigarren jardunaldia jokatu da aste bukaeran. Eta dagoeneko esan daiteke Mondra taldeak hobeto jokatzeko duela etxetik kanpo. Horren lekuko, zapatuan Hondarribian jokatu-tako lehia: "Partidu ona jokatu dugu. Baja batzuk genituen arren, jokalariek guztien jarrera bikaina izan da", esan zigun Mondrako entrenatzaile Igor Gordobilek. Garaipenarekin, Mondra hirugarrena da sailkapenean.

LEHEN GOLA, 30. MINUTUAN

Lehenengo zati parekatua jokatu zuten zapatuan Mondrak eta Hondarribiak. Hasierako minutuetan Hondarribiak menderatu zuen partidua. Baina etxeko taldea apenas izan zuen aukerarik.

Lehenengo zatian, Mondrako jokalariek oso ondo kokatu ziren zelaian eta bikain irten ziren kontraerasora. Hala, kontraeraso haietan gol aukerak sortu zituzten arrasatearrek; eta haietako bat aprobetxatu zuen Iker Lopezek gola egiteko. 30. minu-

tuan egindako golari esker, Mondra abantailarekin iritsi zen atsedenera. Lehen zatien amaieran, baina, Mondrak lehen aldaketa egin zuen: Ruben Ruedak zelaia utzi zuen, min hartuta.

Iker Lopez eta Julen Aranbarri (2) izan ziren golegileak

Ruben Ruedak eta Kepa Mercaderrek ez zuten partidua amaitu; min hartu zuten

BIGARRENEAN GEHIAGO

Bigarren zatia lehenaren antzera hasi zen. Hala, 55. minutuan Mondrak bigarren aldaketa egin zuen, Kepa Mercader lesionatu egin zen-eta.

Baina Mondrak aldea handitu egin zuen 64. minutuan. Kontraerasoko jokaldi baten, Julen Aranbarrik egin zuen gola; jokalariek gehienek parte hartu zuten jokaldi hartan. Eta bi goleko errentarekin partidua erabakita geratu zen. Hondarribiako taldeak amore eman zuen.

Norgehiagoka Arrasateko taldeak menderatu zuen, eta beste gol bat egiteko bidea ere izan zuen Igor Gordobilen taldeak. Julen Aranbarrik egin zuen Mondra taldearen hirugarrena; 76. minutua zen. Azken 15 minutuetan, berriz, ez zen aparteko ezer egon.

PREFERENTE MAILA



ARTXIBOA

Partidua irabazteko aukerak izan zituen Aloñak, baina puntua ontzat eman daiteke.

Partidu orekatua eta puntu banaketa Zubiaurren

ZESTOA
2-2
ALOÑA MENDI

Zestoa | Aranguren, A. Etxeberria, Arrazola (Altuna, 78. min.), J. Etxeberria, Ugarte, Aldalur, Elorza (Zubimendi, 67. min.), Eizaguirre, Gerenabarrena, Uria (Iriarte, 83. min.) eta Zubimendi.

Aloña Mendi | Il. Idigoras, Elgarresta, Lopez, Maiztegi (U. Arregi, 70. min.), R. Idigoras (Garmendia, 80. min.), Bazan (Biain, 86. min.), Zubia, Barrena, I. Arregi (Otamendi, 70. min.), Olalde eta Martin (Sanchez, 56. min.).

Golak: 0-1, Idigoras (4. min.), 1-1, Gerenabarrena (5. min.), 1-2, Bazan (30. min.) eta 2-2, Uria (90. min.).

Epalea: Martinez jauna.

Asteleheneko Goienkaria

Merezitako puntua ekarri zuen Aloñak Zestoaren aurka zapa-tuan jokaturako partidutik.

Lehen zatian, Oruetaren mutilak indartsu atera ziren eta partidua eurek hartu zuten mendean. Horrela, 4. minutuan lehengo gola Idigorasek sartu egin oñatiarrentzat. Erreakzionatzeko astirik gabe, Zestoak berdinketaren gola sartu zuen. Hala eta guztiz ere, Aloñak zelai erdia menderatzen jarraitu zuen eta Zestoak ezin zuen jokorik sortu. Eta Aloñak bigarren aldiz zulatu zuen Zestoaren atea 30. minutuan; golegilea Bazan izan zen. Hala, markagailuan aurretik zirela heldu zen atsedendia.

Bigarren zatian, gauzak aldatu egin ziren eta Zestoa berdinketaren golaren bila atera zen.

EZIN JOKOA SORTU

Zestoa aurrera begira hasi zen jokatzeko, presioa eginez berdinketaren gola lortzeko, eta Aloña ez zen zelai erditik pasatu eta ezin izan zuen lehen zatiko jokorik sortu, baina ederto ari zen defendatzen markagailuan zuen abantaila eta hirugarren gola sartzeko aukera ere izan zuen, baina epaileak joko kanpo adierazi zuen.

Etxekoak fisikoki nekea nabaritzen hasi ziren, eta Oruetaren mutilek hiru puntuak poltsikoan zituztela zirudienean, 90. minutuan berdinketaren gola egin zuen Zestoa.

Zerbait aipatzearren, UDAk lortutako puntua

MUTRIKU

0-0
UDA

Mireia Bikuña

Partidu zakarra jokatu zuten atzo arratsaldean Mutriku eta UDAk. Etxeko taldeak ureztatu egin zuen zelaia, eta, horren ondorioz, egoera tamalgarrian zegoen San Migel futbol zelaia.

BELARREZKO ZELAIA

Belarrezko zelai batean jokaturako partidua izateko, UDAk ontzat eman zuen atzo batutako puntua: "Guk belar artifizialeko zelaian jokatzera ohituta gaude. Hala, belarrezko zelaian jokatzeko dugunean, aldaketa asko antzematen dugu. Gainera, Mutriku zelaia oso txikia da", esan zigun UDAko entrenatzaile Felix Recio.

UDAk eta Mutriku ez zuten batere ondo jokatu atzo, eta gol aukera gutxiko partidua izan zen. Garbiena Mutriku izan zuen luzapeneko minutuetan.

Emaizak eta sailkapenak / Preferente maila

EMAITZAK

Zestoa-Aloña	2-2
Aurrera-Zarautz	0-2
Ordizia-Trintxerpe	2-0
Hondarribi-Mondra	0-3
Hernani-Idiazabal	2-2
Pasaia-Berio	2-0
Martutene-Anaitasuna	1-2
Urola-Touring	1-1
Mutriku-UDA	0-0

HURRENGOAK

UDA-Aloña Mendi
Zarautz-Zestoa
Trintxerpe-Aurrera
Mondra-Ordizia
Idiazabal-Hondarribia
Berio-Hernani
Anaitasuna-Pasaia
Touring-Martutene
Mutriku-Urola

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Zarautz	31	12	10	1	1	24	6
2. Anaitasuna	24	12	7	3	1	17	7
3. Mondra	21	12	6	3	3	16	10
4. Touring	21	12	6	3	3	20	11
5. Hernani	20	12	6	4	2	25	17
6. Ordizia	18	12	5	4	3	12	11
7. Zestoa	18	12	5	4	3	16	16
8. Berio	16	12	4	4	4	14	14
9. Aloña Mendi	15	12	4	3	5	9	16
10. Pasaia	15	12	4	5	3	15	18
11. Trintxerpe	15	12	4	3	5	11	16
12. Idiazabal	14	12	3	4	5	12	19
13. UDA	13	12	3	5	4	10	10
14. Urola	12	12	2	4	6	8	10
15. Aurrera	12	12	2	4	6	14	18
16. Hondarribi	10	12	2	6	4	7	16
17. Martutene	9	12	2	7	3	12	17
18. Mutriku	8	12	1	6	5	9	19

Lehenengo erregionala

Zorte txarra Bergarak, eta puntu bakarra Tolosatik

TOLOSA
3-3
BERGARA

Asteleheneko Goienkaria

Zerbait positiboa ekartzeko asmoz joan zen Bergara Tolosara, eta puntu batekin etorri zen.

Tolosa talde indartsua da, bigarren doa sailkapenean, eta ondo jokatzeko ari da.

Bergararrak, baina, beldurrik gabe partidua bila atera ziren. Eta 4. minutuan, lehen gola Tolosaren markagailura igo zen, Bergarako jokalaririk batek bere atean sartuta. Edozelan ere, Bergarak lanean jarraitu zuen, eta berdinketaren gola Erikek egin zuen. Bergarako taldea ari zen partidua kontrolatzen, baina bana amaitu zen lehen zatia.

Bigarren zatia berdina hasi zen, eta Bergara bigarren golaren bila atera zen; horrela, 15. minutuan Andoni Nafarratek egin zuen 1-2koa. Neka Galanen mutilak jaun eta jabe ziren. Eta

hamar minutu geroago, Canasek hirugarren gola sartu zuen, penaltiz.

Bazirudien hiru puntuak Bergarara etorriko zirela, baina orduan etorri zen bergararren urduritasuna.

AZKEN HAMAR MINUTUAK

Tolosak azken 20 minutuak jokalaririk gutxiagorekin jokatu zuen. Hala eta guztiz ere, partidua bila joan zen etxeko taldea. Eta, hain zuzen, bigarren gola egin zuen; are gehiago, hirugarrena 92. minutuan sartu zuten, bergararren zorte txarreko jokaldi baten.

Bigarren erregionala



JOSETXO ARANTZABAL

BERDINKETAREKIN AMAITU ZEN OÑATIKO DERBIA: 1-1

Emakumeen bigarren erregionaleko derbia jokatu zuten Aloñak eta Mondrak atzo Oñatiko Ibarra futbol zelaian. Joko aldetik partidua nahiko eskasa izan zen. Hasi eta berehala hartu zuen abantaila Arrasateko taldeak, baina atsedenean aurretik Aloñak berdinketa lortu zuen. Hala, bigarren zatian ez zuten gol gehiagorik egin.

• EUSKADIKO TXAPELKETA

Elgoibar liderra mendean hartu zuen Ford Mugarrik

Erritmo eta emozio handiko norgehiagoka jokatu zuten bi taldeek Iturripen

FORD MUGARRI
32-29
ELGOIBAR

Ford Mugarri | Asier, Ekaitz, Jonan (4), Aitor, Eneko (1), Peio (4), Arkaitz (2), Rafa (3), Aitor, Garikoitz (2), Andoni (10), Nestor (4) eta Iker (2).

Elgoibar | Mosquera, Larrañaga (1), Armendia (2), Santos, Puente (6), Sagasta (3), Barrutia, Kruzelegi (4), Alberdi, Hernandez (3), Leibar (2), Peñaranda (9) eta Azkue.

Golak bost minuturo: 4-3, 6-5, 8-8, 11-11, 15-12, 18-15. Atsedena. 20-18, 24-21, 27-21, 29-24, 30-28, 32-29.



Argazkian, Garikoitz Arregi baloia botatzen, Iker Otegi begira duela.

JOSETXO ARANTZABAL

Mireia Bikuña

Euskadiko Txapelketako lider den Elgoibar taldearen aurka jokatu zuen zapatuan Ford Mugarrik. Eta partidu borobila egin zuen Arrasateko taldeak. Hasieratik bukaerara menderatu zuen partidua. Bada, gustura amaitu zuten partidua Ford Mugarriko jokalariek.

BERDINTASUNA

Norgehiagoka oso parekatu izan zen lehen minututik. Ford Mugarrik tarteka bi goleko errenta hartzen zuen markagailuan, baina Elgoibarrek berehala lortzen zuen berdinketa.

Atsedena aurretik, Beñardo Balerdiren taldeak berriro hiru goleko errenta hartu zuen, eta Elgoibarrek ez zuen berdintzeko denborarik izan. Hala, arrasatearrak abantailarekin iritsi ziren: 18-15.

Bigarren zatian poliki-poliki abantaila handitzen joan zen, eta 4-0ko partzialaren ondoren, 13. minutuan sei goleko errenta zuen Ford Mugarrik.

Hala, desabantaila harekin banakako defentsa egin zuen Elgoibarrek, eta aldea asko estu-

tu zen: 26. minutuan gol bateko errenta zuten etxekoek, 30-29.

Tarte hartan bizi izan ziren partiduko unerik zailenak. Hala ere, Ford Mugarriko jokalariek ez ziren urduri jarri, eta Elgoibar taldeak lehia irabazteko azken ahalegina egin zuen. Baina ez zuen gol gehiagorik egin.

Arrasatearrak egin zituzten partiduko azken bi golak.

• GAZTEEN MAILA, MUTILAK

Oso erraz irabazi zuen Aloñak

ALOÑA MENDI
47-17
GOIERRI

Aloña Mendi | Kortabarria, Elorza (4), Karmona (4), Tome (1), Azpiazu (7), Lamas (8), Etxebarria (11), Ugarte (8), Arizmendi (1), Korkostegi eta Martins (3).

Goierri | Saldias, Zabala (3), Ribera (3), Goikoetxea (3), Alvarez (3), Martinez, Gallardo (1), Agirre (2), Moreno eta Olano (2).

Bost minuturo golak: 2-1, 8-2, 11-3, 13-6, 17-7, 22-7, 25-8, 31-9, 32-12, 38-12, 42-14 eta 47-17.

Asteleheneko Goienkaria

Partidu oso erraza izan zuten Aloña Mendiko gazteek zapatuan Zubikoan.

Goierritarrak baino gehiago izan ziren etxekoak hasieratik. Bai defentsan eta baita erasoan ere ez zuten aurkaririk izan Mikel Mantxolaren mutilek.

GOIERRITARRAK, EZINEAN

Goierritarrek ez zuten erasoan asmatzen eta etxekoek, egoera hura aprobetxatuz, behin eta berri kontraerasoan atera eta gola egiten zuten; horrela lortu



Partiduaren jaun eta jabe izan ziren etxekoak.

JOSETXO ARANTZABAL

zuten markagailuko errenta handia. Alde txar bezala, berriz, aipatu behar da Arizmendi oñatiarra lesionatu egin zela, orkatila bihu-

rrituta. Partiduko gogile nagusia Etxebarria izan zen (12 gol) eta Ugartek eta Lamasek zortzi-na gol egin zituzten.

• EUSKADIKO TXAPELKETA

Aloñak irabazi egin zuen Ermuan: 11-18

A.G

Euskadiko Txapelketako partidua jokatu zuten zapatuan Ermuko kiroldegian Ermuak eta Verkol Aloñak.

Eta, hain zuzen, Oñatiko taldeak irabazi egin zuen, hirugarren garaipena jarraian. Horren harira, bolada onarekin jarraitzeko asmoa dute: "Bilboren aurka galdu genuenetik, bolada ona hartu dugu. Taldean giro oso ona dago eta partiduak irabazten jarraitzeko gogoarekin gaude", azaldu zigun taldeko entrenatzaile Maitane Ruizek.

Jokoari begiratuta bi zati ezberdin izan zituen zapatuko partidua, eta Verkol Aloñak joko hobea erakutsi zuen bigarrean.

• LEHEN TERRITORIALA

Tentsio handiko partidua irabazi zuen Bergarak

Asteleheneko Goienkaria

Bergarak Ormaiztegin jokatu zuen zazpigarren jardunaldiari zegokion partidua, eta irabazi egin zuen, 19-25.

Bi taldeak ere partidurik galdu gabe zeuden ordura arte, eta tentsio hori nabaritu egin zen partiduan zehar. Izan ere, urduritasun horregatik-edo, joko aldetik txarra izan zen partidua bi taldeen partetik. Jokoa gogortu egin zen, eta epaileak Ormaiztegi bi jokalarik eta Bergarako beste bat kalera bota zituen.

Bigarren zatian bergarrek defentsa hobetu zuten, eta etxekoek 15 minutuan hiru gol baino ez zituzten egin; hain zuzen, hor egon zen partidua gako.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

BIGARREN MAILA NAZIONALA
Ford Mugarri-Tecnifuelles Elgoibar 32-29

LEHENENGO TERRITORIALA
Usurbil-Arrasate eskubaloia 32-26
Ormaiztegi-Bergara 19-25

SENIOR NESKAK
Ermua-Verkol Aloña 11-18

JUBENILAK MUTILAK
Aloña Mendi-Goierri 47-17

JUBENILAK NESKAK
Verkol Aloña-Gasnalsa 24-7

KADETE MUTILAK
Urnieta-Aloña Mendi 21-52

KADETE NESKAK
Usurbil-Verkol Aloña 17-23

• GIPUZKOAKO LIGA, GAZTE MAILA

Ligako lehia guztiak irabazi ditu

Zapatuan Hernani taldea mendean hartu zuen Arrasateko gazte mailako taldeak; hala, orain arteko bederatzizko partiduak irabazi egin dituzte

MUGARRI ALKESA
79-52
HERNANI

Mugarri Alkesa | Ander (3), Imanol (10), Mikel (12), Borja (8), Beñar (22), Antxon (17), Txomin (5) eta Sergio (5).

Hernani | Senpelar (2), Odriozola (3), Santiago (8), Arrieta (14), Areta (2), Casti- llo (13) eta Garcia (10).

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena, 20-12. Bigarren laurdena, 46-28. Hirugarren laurdena, 65-43. Laugarren laurdena, 79-52.

HASIERA ZAILA

Zapatuko lehiako unerik zailenak hasierako minutuak izan ziren. Arrasatearrei kostatu egin zitzaizkien partiduan sartzea. Hain zuzen, Hernani izan zen lehen puntuak eginda alde hartu zuena (8-10). Une hartan hutsartea eskatu zuen Arrasateko taldeak. Entrenatzaileen aginduak entzun ondoren, bi minutuan partidua alde jarri zuten Mugarri Alkesako gazteek: 12-2ko partziala egin zuten. Lehen tartearen amaieran etxeakoak ziren nagusi, 20-12.

Lehen laurdenaren amaieran, etxeko taldeak zuen abantaila handitu egin zen bigarrenaren. Arrasatearrek jokatuak laurdenik onena izan zen. Tarte hartan, erasoan joko azkarra egin zuten etxe-koek. Halaber, defentsan lan bikaina egin zuten; batez ere, kantxa osoan egindako presioari esker. Bada, Hernani taldeak ez zituen jaurtiketa onak egin.

Bigarren laurdenean Mugarri Alkesak 26 puntu egin zituen. Hala, atsedenera 18 puntuko errentarekin iritsi zen. Partidua erabakita zegoen ordurako.



JOSETXO ARANTZABAL

Antxon Hernandezek 17 puntu egin zituen zapatuan.

ERRENTA MURRIZTU

Mugarri Alkesako gazteek eta Hernanik jokatuak partiduko hirugarren eta laugarren laurdenak parekatuagoak izan ziren. Hirugarren laurdenean, arrasatearrek aldaketa asko egin zituzten; jokalariek guztiak jokatu zuten.

Puntu gutxiko laurdena izan zen: arrasatearrek 19 egin zituzten eta Hernani taldeak, 14 besterik ez.

Laugarren laurdenean, norgehiagoka oso antzera joan zen. Tarte hartan ere oso puntu gutxi egin zituzten bi taldeek: etxeko taldeak 15 puntu eta Hernanik, bederatzizko bakarrik. Amaieran, garaipena Arrasaten geratu zen.

Amaitzeko esan, lesioak tar- teko etxeko taldeak lau baja izan zituela zapatuko norgehiagokan; Ugaitzek, Aitorrek, Anderrek eta Aimarrek ez zuten jokatu.

Mireia Bikuña

Harrobi sendoa dute Arrasateko saskibaloitzaileak; izan ere, liga hasiera bikaina egin du gazte mailako taldeak. Orain arte jokatuak norgehiagoka guztiak irabazi egin dituzte arrasatearrek. Hala, Euskal Ligara igotzeko finalerdietarako txartela lortu du gazte mailako taldeak.

• SENIOR MAILA

Zazpigarrenean ere, Aloñak ezin

ALOÑA MENDI
33-38
OJARSO

Aloña Mendi | J. Arregi (5), Ugarte (4), Losada (6), C. Maestro, Etxeberria (2), Rosaz (3), Cruickshank, R. Maestro (13), Pico eta Arzamendi.

Oiarso | E. Gonzalez, Roteta (10), L. Rodriguez, Hernandez (3), Idiazabal (10), A. Gonzalez (10), Lanchas (2), Montero, Red, Olai- zola (3), Elustondo eta Marques.

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena: 11-9. Bigarren laurdena: 14-16. Hirugarren laurdena: 23-21. Laugarren laurdena: 33-38.

Jasone Zabala

Zazpigarren jardunaldian ere ezin izan zuten lortu oñatiarrek denboraldiko lehen garaipena. Errenteriako Oiarso taldea etorri zen Oñatira, haiek ere lehen partidua irabazteko asmoz.

Partidua gogorra izan zen hasieratik; bi taldeak nahiko urduri ateratu ziren kantxara.

Banakako defentsan hasi ziren bi taldeak; lehen laurdenean etxeakoak aurretik joan baziren ere, bigarrenaren kanpokoek markagailua berdindu egin zuten eta atsedenaldira 14-16 heldu ziren. Bigarren zatian ere pare-



JOSETXO ARANTZABAL

Aloña saiklapeneko azken postuan dago.

kotasun handikoa izan zen hirugarren laurdena.

AZKEN MINUTUEK ERABAKI

Azken laurdenean, etxeakoak ziren nagusi eta azken minutu-

ra bi puntugatik irabazten heldu baziren ere, errenteriarrek presioa egin zuten kantxa guztian, oñatiarrek ezin izan zuten presio hori gainditu, eta, baloia- k galduta, lehia ere galdu zuten.

• LEHENENGO MAILA

Leioan irabazi zuen Mugarri Alkesak

A. G.

Mugarri Alkesak irabazi egin zuen Askartzaren kantxan: 71-90. Iazko igoera fasean bi taldeek izandako lehia biziaren ondoren, denboraldi honetan arrasatearrek talde sendoagoa dutela erakutsi zuten zapatuan Leioan jokatuak norgehiagokan.

PARTIDU TXARRA

Zapatuko lehia nahiko txarra izan zen. Mugarri Alkesak abantaila izan zuen hasieratik. Hirugarren laurdenean, Askartza markagailuan hiru puntura hurbildu zen. Edoze- lan ere, ez zuen aukerarik izan partiduari buelta emateko.

• GIPUZKOAKO TXAPELK.

Garaipen garrantzitsua Eskoriatzak

A. G.

Zazpigarren jardunaldia joku- tu eta beste garaipen bat erdie- tsi dute Eskoriatzako senior mailako neskek, oraingo honetan Andraitz talde legaz- piarraren aurka, 33-45.

Ez zuen garaipen erraza izan, lan handia egin behar izan zutelako, baina Txema Sanchez entrenatzaileak eder- to antolatu zuen partidua.

Ordezko jokalariek bikain mugitu zituen Sanchezek, minutuak emanda; defentsan ondo ibili ziren arren, taula azpiko jokoa hutsegite asko egin zituzten eskoriatzarrek, baina irabazi egin zuten.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHENENGO MAILA

Askartza-Mugarri Alkesa 71-90

SENIOR NESKAK

Aloña Mendi-Oiarso 33-38

Andraitz-Eskoriatza 33-45

GAZTE MUTILAK

Mugarri Alkesa-Hernani 79-52

Igaratza-Aloña Mendi 31-54

GAZTE NESKAK

Internacional-Txirrita 43-65

Antigua LuberrriB-Eskoriatza 68-8

KADETE MUTILAK

Ford Mugarri-Easo Ibaia 61-43

Aloña Mendi-Internacional 36-57

KADETE NESKAK

Easo Loiola-Eskoriatza 51-43

EMAKUMEAK



BIGARREN ERREGIONALA



OHOREZKO GAZTEAK



LEHEN MAILAKO GAZTEAK



PREFERENTE MAILA

Goiko ilaran, ezkerretik hasita: Ander Ruiz de Azua, Argider Arana, Kepa Mercader, Iker Laspiur, Andoni Amutxastegi, J...
 Erdiko ilaran: Iban Aranguren (prestatzaile fisikoa), Iban Garai, Maikel Hernandez, Igor Gordobil (entrenatzailea), Jose Luis...
 Beheko ilaran: Ekain Garin, Josu Zubikarai, Julen Aranbarri, Illart Etxebarria, Iker Lopez, Aitor Alarzia, Ruben Rueda

Futbol Elkartea



Julen Heriz, Jon Loiti eta Mikel Calvo.
As Azkarate (presidentea), Juanina Garai (2. entrenatzailea), Julen Losada, Arkaitz Garmendia eta Antxon Losada (delegatua),
eta Markel Gonzalez.

OHOREZKO KADETEAK



OHOREZKO INFANTILAK



ESKOLA-INFANTILAK (11NAKOA)



ALEBINAK



Eskola kirola

BERGARA

Irristaketa hain ezaguna ez bada ere, gustuko dute gaztetxoek

Herriko eskola batzuetako gaztetxoek jardun zuten zapatuan irristaketan

11 eta 12 urte bitarteko gazteak izan ziren Mariaren Lagundiko jolastokian

Euria egin zuenez, bigarren txandakoak Zabalotegiko frontoian aritu ziren

Jasone Zabala

Zapatuan, ezohikoa den kirola zuten egiteko eskola kirolean ari diren gaztetxoek. Guztira lau talde izan genituen Mariaren Lagundia ikastetxeko jolastokian. Nork bere patinak eroan zituen, eta zegokion eskolako kamiseta ipini eta Estitxu monitoreak esandakoa zintzo jarraitu zuten.

Aranzadi 4 taldeko neskek izan ziren lehenak patinak ipintzen eta lur gaineko hockeyan jokatzeko. Momentu hartan euria hasi zen, eta jolastokiko aterpe batera joan ziren. Goizeko 11etan beste hiru talde agertu ziren, baina haiek Zabalotegiko frontoira joan ziren.



JASONE ZABALA

Aranzadi 4. Usue, Olatz, Maider U., Saioa, Maider S., Jasmin, Ainhoa M., Jone eta Ainhoa S. agertzen dira argazkian.



JASONE ZABALA

Mariaren Lagundia. Nere, Ainhoa A., Nerea, Lierni, Lide, Izar, Idoia, Nerea, Ainhoa, Marian eta Karmele agertzen dira argazkian.

ASKOTARIKO JOLASAK

Hain zuzen, Zabalotegiko frontoira Mariaren Lagundia, Aranzadi 6 eta San Martin B ikastetxetako gazteak joan ziren. Estitxu monitoreak frontoiko zorua hiru zatitan banatu zuen eta bertan, irristaketan egin daitezkeen hainbat joko egin zituzten. Gaztetxoek nahiago izaten dituzte betiko kirolak egitea: futbola, saskibaloia eta halakoak, baina eurentzat berria izan daitekeen kirol honetan ere gogotsu aritzen dira: "Kirol bat aukeratzekotan futbola aukeratzeko genduzte, baina irristaketa ere gustuko dugunez eta, gainera, jolasak egiten ditugunez, gustura etortzen gara".



JASONE ZABALA

Aranzadi 6. Joanes, Iñaki, Aitor O., Mikel, Christian, Beñat, Imanol, Andoni, Aitor B. eta Jon agertzen dira argazkian.



JASONE ZABALA

San Martin B. Jon, Unai, Iker, Mohamed, Mikel, Bittor eta Ander agertzen dira argazkian.

• IRRISTAKETA BESTE KIROLAK BEZAIN GUSTUKO AL DUZUE?



AINHOA, JASMIN ETA USUE |
ARANZADI 4

"Guri gehien gustatzen zaigun kirola futbola den arren, irristaketa ere gustatzen zaigu, eta gehienbat gure kontura ibiltzen garenean alde batetik bestera".



IZAR ETA NEREA |
MARIAREN LAGUNDIA

"Irristaketa ez dugu askotan egiten eskola kirolean, baina gustuko dugu, nahiz eta saskibaloia ere gustatzen zaigun".



MARIAN ETA NERE |
MARIAREN LAGUNDIA

"Guri saskibaloia da gehien gustatzen zaiguna, baina irristaketa ere oso polita da, batez ere lagunekin ari garenean".



ANDONI ETA MIKEL |
ARANZADI 6

"Futbola gustatzen zaigun gehien. Hala eta guztiz ere, irristaketan gustura jarduten dugu".



CHRISTIAN ETA IÑAKI |
ARANZADI 6

Bi horiek ere futbolari amorratuak dira, baina irristaketa ere gustuko dute: "Patinetean ibiltzea gustatzen zaigu".

Pilota

• DV TXAPELKETA

Mendizabal eta Etxeberria, finalerdietarako sailkatuta

Elezkano eta Bergera bikotea hartu zuten mendean, 22-11

Jasone Zabala

Garaipena eta finalerdietarako txartela poltsikora eraman zuten Mendizabal eta Etxeberria (gorriz), Elezkano eta Bergeraren (urdinez) aurka zapatuan Elgetan jokaturako partiduan.

Hasieratik aurrelari antzularra jaun eta jabe izan zen aurreko koadroetan eta Elezkanok lanak izan zituen tantoak egiten. Antzularri ederki zaindu zion bizkarra Etxeberria nafarrak. Tantoa atzean hasi baina behin eta berriz aurrean amaitzen zuten gorriek.

MENDIZABAL, BIKAIN

Mendizabalek tanto amaiera bikainak egin zituen, pilotari izugarritzko abiadura emanda,



JASONE ZABALA

Mendizabalen lana bikaina izan zen aurreko koadroetan.

eta Elezkano ezinean zebilen. Bergerak ere lanak izan zituen bere eskuin eskuarekin, eta, gauzak horrela, markagailuko aldeak gora egin zuen. Amaie-

ra aldera, baina, nekea ere agertu zen pilotarien lanetan, eta urdinak markagailuan pixka bat hurbildu ziren arren, garaipena gorrientzat izan zen.

Golfa

Peugeot Tourreko finala 25. tokian amaitu du Mikel Galdosek


Mireia Bikuña

Cadizen jokatu da aste bukaeran Peugeot Tourreko final handia. Hain zuzen ere, 50 golf jokalarik hartu dute parte txapelketan, eta Mikel Galdos golf jokalaria aretxabaletarrak 25. tokian amaitu du lehia. "Ez dago gaizki", esan zigun Mikel Galdosek txapelketa amaitu bezain pronto. "Golf zelaia egoera eskasean zegoen. Andaluzian ez du euri askorik egiten, baina egunotan ur asko bota du eta zelaian nabaria zen. Zulo asko zeuden".

BIGARREN JARDUNALDIA ONENA

Peugeot Tourreko finalean lau jardunaldi izan ziren, eta Galdosek bigarrenaren egin zuen ibilbide onena: 70 kolpe egin zituen; zelaia dituenak baino kolpe bat gutxiago. Lehen ibilbidean, 75 kolpe egin zituen; hirugarrenean, 74; eta laugarrenean, 76.

Bada, sailkapen orokorra egiteko orduan lau jardunaldiak hartzen dira kontuan. Hala, Mikek Galdosek 25. tokian amai-



JOSETXO ARANTZABAL

Mikel Galdos pilota jotzeko prest.

tzeagatik 2.325 euroko saria jaso zuen. Irabazlea, berriz, Santiago Luna izan zen.

Eta orain "oporrak hartzeko unea" iritsi zaio Mikel Galdos golf jokalariai. "Gipuzkoako zirkuituko bi txapelketa geratzen dira. Eta ondoren merezitako oporrak hartuko ditut", esan zigun.

ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, SHARP eta EDESA etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabeteetan interes barik.

AURREKONTUAK KONPROMISO BARIK.

BERMEA 2 URTE
1.850 X 598 X 590 mm
HOZKAILUA COMBI 4FAC495
360 € 59.899 pta

BERMEA 2 URTE
1.700 X 600 X 600 mm
HOZKAILUA 2 ATE
220 € 36.605 pta

BERMEA 2 URTE
ONTZI-GARBIGAILUA LJA - 0140
200 € 33.277 pta

BERMEA 2 URTE
1.000 b/min 5 kgr.
GARBIGAILUA LA-110
240 € 39.933 pta

"RENOVE PLANA" 75 euroko deskontua

"EVA" MAHAIA 110x70 cm
365 € 60.731 pta

TELEBISTA SHARP LC-26P55 LCD 26"
899 € 149.557 pta

TELEBISTA SHARP LC-32P70 LCD 32" LTD BARNE
1.250 € 207.950 pta

"MARIAM" MAHAIA 110x70 cm
270 € 44.924 pta

ETIKETA ENERGETIKOA

Eraginkortasun gehien	A+
	A
	B
	C
	D
	E
	F
Eraginkortasun gutxien	G

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

KARATEA | EUSKADIKO TXAPELKETA

Parte-hartze handia eta Debagoienekoen lan txukuna

Maila handiko txapelketa ikusi ahal izan genuen zapatuan Bergaran; faboritoek irabazi zuten eta debagoiendarrek lan ona egin zuten

Jasone Zabala

Zapatu arratsaldean jokatu zen Bergarako Labegaraieta kiroldegian, bertako Shotokan taldeak antolatuta, Euskadiko Karate Txapelketa, kate eta kumite modalitateetan. Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako karatekarik onenak izan genituen lehian, denak ere irabazteko asmoz, eta guztiek erakutsi zuten maila altua izan zen.

Guztira 20 talde inguru (gehienak bizkaitarrak) eta 200 karateka izan ziren Bergaran; iragarpenak bete egin ziren, eta taldeka, Santa Teresa Barakaldoko talde bizkaitarrak irabazi zuen. Eta banako saioetan ere ez zen ezustekorik izan.

DEBAGOIENEKOAK, ONDO

Gure karatekei dagokienez, zazpi hartu zuten parte. Kate modalitatean, Miren Laskurainek 4. postua lortu zuen, Unai Zabartek 8. postua eta Aitziber Ferreirok, 4. postua.

Kumite modalitateari dagokionez, zazpi parte-hartzaile izan

ziren, eta askotariko emaitzak lortu zituzten: Unai Zabartek gazte mailan 4. postua lortu zuen; Jon Rodriguez arrasatearrak, 5. postua; Carlos Sanchez arrasatearrak 3. postua lortu zuen; Miren Laskurain bergararra 4. postuan sailkatu zen; Aitziber Ferreiro 3. sailkatu zen eta Naiara Canterok ere 3. postua lortu zuen. Andoni Condek, aldiz, ezin izan zuen parte hartu, lesionatu egin baitzen entrenamenduan.

Josean Iñarra Gipuzkoako hautatzaileak esan digunez: "Maila handia egon da gaurko txapelketan; hau guztiau antolatzek ere lan handia eskatzen du, baina, hala ere, pozik gaude lortutako emaitzekin, nahiz eta zerbait gehiago ere lor genezakeen. Lehen bosten artean gelditzea emaitza oso ona da, kontuan hartuta parte-hartzaileen artean Europako txapeldunak eta Espainiako selekzioarekin ari diren karatekak zeudela."

Jende ugari hurbildu zen Bergarara txapelketa ikustera eta giroa ere ezin hobea izan parte-hartzaile guztien artean.



BENITO CANTERO

Irabazle guztiak lortutako garaikurrekin.


• NOLA JOAN DA TXAPELKETA?



AITZIBER FERREIRO | BERGARA
"Hirugarren postua lortu dut eta pozik nago lortutako emaitzarekin, baina txapelketa honetan zerbait gehiago egi-tea espero nuen".



JON RODRIGUEZ | ARRASATE
"Nire burua ondo ikusi dut. Beti egin daiteke zerbait gehiago, baina bosgarren postua ondo dago. Epaileak ez dira oso fin ibili".



CARLOS SANCHEZ | ARRASTE
"Maila handia egon da gaurko txapelketan. Nire lana on izan dela uste dut. Aurkaria ni baino hobea zen eta ezin izan dut besterik egin".



NAIARA CANTERO | BERGARA
"Txapelketa ondo joan da. Lehen aldiz parte hartzen dut halako txapelketa batean. Aurkari-ek esperientzia handiagoa zuten".

Arku tiroketa

46 arkularik parte hartu zuten Arrasaten ligako bigarren jardunaldian

Arrasateko SP taldeak antolatu zuen arku tiroketa saioa

Mireia Bikuña

Musakolako kiroldegian jokatu zen arku tiroketa ligako bigarren jardunaldia, eta bederatzi elkartetako 46 arkularik parte hartu zuten. Haietatik zazpi, Arrasate SP taldeko kideak ziren: alebin mailan, Iker Subinajak parte hartu zuen eta Alberto Zubiaurrek, Alberto Murtziak, Juan Mari Errastik, Carlos Piñeirik, Jose Antonio Miguensek eta Jokin Manterolak, senior mailan.



JOSETXO ARANTZABAL

Musakolako kiroldegian egin zuten arku tiroketa saioa.

ZAPATUKO ONENAK

Zapatuan jokaturako bigarren jardunaldiko irabazleak, Alberto Murcia, Iñaki Rodriguez eta

Juan Mari Errasti arrasatearra izan ziren.

Ligako hurrengo jardunaldia, Barakaldon jokaturako da.

• 'JOTZEKO PREST!' PALA TXAPELKETA



LORAMENDI ELKARTEA

FINALERDIAK ORAINGO ASTEAN ERABAKIKO DIRA

Aurrera jarraitzen du Loramendi Elkartek antolatutako *Jotzeko prest!* pala txapelketak. Partidu batzuk atzeratu egin dira eta oraindik ere lehen fasea amaitu gabe dago. Egubakoitzean jokatu zen atzeratutako partiduetako bat eta emaitza ondorengo izan zen: Xabier Jausoro eta Josu Sarasuak 24, Asier Zubia eta Jon Etxeberriak 8.

Atzeratutako partiduak astean zehar jokaturako dira, baina oraindik erabaki gabe dago noiz izango diren partiduok.

Bixente Pagaldai bergararrak 29. aldiz bukatu zuen atzo Donostiako maratonia; 3:45:39ko denbora behar izan zuen bergararrak. Orain arte jokatu diren ekitaldi

guztietan parte hartu duen atleta bakarra da. 29 urte zituela hasi zen maratointan parte hartzen eta dagoeneko 40 maratoni egin ditu. Maratoiaren ondoren atseden

hartzen du eta mendian eta bizikletan bakarrik ibiltzen da Pagaldai. Uda aldean hasiko da maratonia prestatzen; datorren urtekoa azkena izango dela esan digu.

BIXENTE PAGALDAI | KORRIKALARIA

“Datorren urtean 30.a ospatzeko asmoa dut; azkena izango da”

Arantzazu Ezkibel

Aurtengoa 29. aldian izan duzu. Donostiako maratoni guztiak egin dituen atleta bakarra zara. Ohore handia izango da.

Bai, hala esaten dute, ohorea dela. Ni ez lagatzearren nabil, batera joan eta bestera ere bai. Asko sufritu ostean amaitzea lortu nuen 3:45:39 denbora eginda. Urtero bezala, kostatu egin zitzaidan amaitzea, baina nire helburua ez zen marka egitea, amaitzea baizik. Bazkari ederra eginda ospatu nuen familiarrean.

Orain dela gutxi arte Xabier Zubizarreta pasaitarrarekin banatu duzu ohorea. Hark, ordea, utzi egin zuen.

Bai, Zubizarretak 25 maratoni egin zituenen utzi zuen. Azken urteetako maratointan ez du parte hartu. Etxean emazteak gogor egiten zion, eta utzi egin behar izan du.

Izan ere, gogorra da; maratonia baino lau edo bost hilabete lehenago hasi behar duzu entrenatzen, eta normala da etxekoak aspertzera.

Eta zuri zer esaten dizute etxean?

Andrea, azkeneko urteetan, lagatzeko esaten dabil, baina hura ere gustura joaten da Donostiara maratonia ikustera. Familiatik anai-arreba mordoak joaten dira Donostiara.

Nola hasi zinen maratointan parte hartzen?

Nik beti izan dut kirola egiteko zaletasuna. Donostiako lehenengo maratonia egin zenean, aukera polita ikusi genuen bertan parte hartzeko. Gu korrika egitera joan ginen, baina, egia esan, ez genekien maratonia zer zen. Lehenengo urtea oso gogorra izan zen.

Eta nola gogoratzen duzu lehen aldi hura?

Lur jota amaitu genuen. Gainera, azkeneko bi hilabeteetan bakarrik entrenatu ginen; inoiz korrika ibili gabeak ginen. Gehia

go ez ginela joango esan genuen, baina giroa polita izan zen eta hurrengo urtean ere animatu egin ginen. Eta ordutik hona urtero joan izan naiz.

Bestalde, tabernarik taberna ez ibiltzeko aukera ona da.

Urte hauetan guztietan oinetako pare mordoak hautatu zituen.

Bai, larregi. Orain ere lau edo bost pare ditut; batzuk mendian ibiltzeko, beste batzuk errepide-rako...

Zer nahiago duzu, errepidean ala mendian ibili?

Nik nahiago dut mendian ibili. Baina behin sasoi puntua hartuta, maratonia baino bi hilabete lehenago-edo, beharrezkoa da errepidean entrenatzen hastea. Oso desberdina da mendian korrika egitea edo errepidean korrika egitea; horregatik, gorputza ohitzea komeni da. Izugarriko desberdintasuna dauka.


Maratonia prestatzeko modua denborarekin aldatu egingo zenuen.

Bai. Lehen, gainera, urte guztian zehar egiten genuen korrika, ez Donostiako maratonia bakarrik. Beraz, gorputza maila onean mantentzen genuen ia urte guztian.

Orain, berriz, negu partean bizimodu normala egiten dut. Mendian eta bizikletarekin ibil-

“Maratoniak gogorak dira: lau edo bost hilabete behar dituzu prestatzeko”

“Lehen, urtean hiru maratoni egiten nituen, baina orain, Donostiakoa bakarrik”



JOSETXO ARANTZABAL

Bixente Pagaldai mendira joaten da entrenatzera. Guk Agorrosinen harrapatu genuen, azken entrenamendua egiten.

tzen naiz, baina ez larregi, eta uda aldean hasten naiz korrika.

Jendea orain prestatuago dago?

Bai. Lehen esan dizudan moduan, lehenengo urte haietan zentzugabekeriak egiten genituen. Batere ibili gabeko jendeak hartzen zuen parte maratoin;

anbulantzia gora eta behera etengabe lanean aritzen zen.

Apustuak ere egin izan dituzu. Zein izan da bitxiena?

Azpeitiko zezen-plazan egin nuena izan zen bitxiena; hura nahiko apustu profesionala izan zela esan daiteke. Inaki Uzkudun lehendik ezaguna nuen eta hura etorri zen niregana apustua egitera. Koadrilakoek animatu ninduten, eta, hala, Azpeitiko zezen-plazara joan ginen 10.000 metro egitera. Irabazi egin nuen arren, gerora ez dut halako apustu gehiagorik egin.

Oso gogorra izan zen, uda guztian hura prestatzen ibili nintzen; oporretara joan gabe geratu nintzen. Gaur egun lagunak zirikatzen ibiltzen dira, “horrenbeste denboran egin ezetz!” eta halakoekin, baina ezer serio egin gabe. Afari bat egiteko motiboa izaten da.

Lehen, marka egitea izango zenuen helburu; orain, berriz, bukatzea.

“Azpeitiko zezen-plazan egin genuen apustua gogorra izan zen; ez dut gehiago egin”

“40 urterekin egin nuen marka onena; ordutik hona, berriz, poliki-poliki jaisten joan naiz”

Bai. Lehen, beti aurreko urtekoa hobetzera joaten ginen. Nik 40 urterekin egin nuen marka onena, bi ordu eta 30 minutu. Baina behin topea eginda, poliki-poliki jaisten hasi nintzen. Orain, bukatzea izaten dut helburu.

Horrenbeste urtean bitxiak asko bizi izango zenituen.

Behin lo geratu nintzen. Beste lagun batekin ari nintzen korrika; nire denbora baino zazpi bat minutu azkarrago nindoan, eta hori asko da. Ondorioz, ahulezia sartu zitzaidan eta geratu beharra izan nuen. Banku batean etzan eta lo geratu nintzen, nagusi batek iratzarri ninduen arte. Hark, oinez hasteko esan zidan, eta horixe egin nuen; poliki-poliki hasi eta bukatzea lortu nuen.

Beste behin, ospitaletik atara berritan joan nintzen maratoina. Maratonia egin behar nuela esan nion medikuari, baina ez zidan sinetsi, brometan ari nintzela uste zuen.

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Maskarada taldeak 'Picasso 1937' lana erakutsi du Euskal Herrian lehenengoz, Oñatin | 24
- Anje Duhaldek 'Sorminetan' disko berria aurkeztuko du abenduaren 1ean Eskoriatzan | 27

Jokin Zubiak
'Zañartu, hamaika kontu eta irudi'
liburua aurkeztu
zuen Oñatin | 26

'LA LEYENDA DEL BESO', ARRASATEN



Ruth Osinaga da protagonista nagusia; kondearen eta Ivanen haserrea piztuko du.

JOSETXO ARANTZABAL

Fitxa teknikoa

- **Dekoratuak eta eszenografia**
Marije Carrillo eta Javier Burgos.
- **Atrezzoak, jantziak eta makillajea eta ile-apaintza**
Izaskun Murgia Elkarte Lirikoa.
- **Argien diseinua eta ardura**
Andoni Zubiaga.
- **Arotza**
Juan Maria Amozarrain.
- **Erregidoreak**
Mertxe Salaberri.
- **Eszena zuzendaria**
Mertxe Salaberria.
- **Jostun taldea**
Izaskun Murgia Elkarte Lirikoa.
- **Dantza taldea**
Izaskun Murgia Elkarte Lirikoa.
- **Dantzari bakarlariak**
Jon Aranbarri eta Jana Fuentes.
- **Abesbatza**
Izaskun Murgia Elkarte Lirikoa.
- **Piano jotzailea**
Esther Azurmendi.
- **Orkestra**
Arrasate Musikal.
- **Orkestra zuzendaria**
Alberto Saez Puente.
- **Elkarteko presidentea**
Tere Gonzalez.

ZARZUELA | DATORREN ASTE BUKAERAN ERE EGINGO DITUZTE EMANALDIAK

Arrasatearrak kondearen eta ijitoaren arteko musuaren testigu izan ziren

Arrasateko Amaia antzokia bete egin zen 'La leyenda del beso' zarzuela ikusteko; Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak egiten duen zazpigarren ikuskizuna izan da asteburuon eskaini dutena

Arantzazu Ezkibel

Arrasate Musikaleko orkestraren konpasekin eman zizaien hasiera *La leyenda del beso* zarzuelaren estreinaldiari. Oholtza gainean Enrike Altuna agertu zen, Ivan ijitoaren paperean, ikuskizuneko lehenengo doinuekin.

Estreinako emanaldian ohikoa den urduritasunarekin egin zioten aurre Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak *La leyenda del beso* zarzuelari. Obra zaila aukeratu dute; izan ere, Reveriano Soutulloren eta Juan Verten obra ederra da baina ere berean abes- teko zailtasunez josita dago.

Hala, musikaren laguntzarekin atze-oihala ireki eta obrako protagonista nagusiak ezagutu

genituen. Alde batetik, Mariano kondea (Mikel Balantzategi) eta bere lagunak. Horiek kondearen gazteluan daude eta ehizako gorabeherak dituzte hizpide. Eta bestetik, Amapola (Ruth Osinaga) eta Ivan ijito bikotea. Tribu guztia- rekin aurrera eta atzera dabilen ijito taldea da eta egun batean kondearen gaztelu inguruan atse- den hartzen geratuko dira.

EZINEZKO MAITASUNA

Aurkezpenak eginda, maitasun istorio baten murgilduko gara. Izan ere, kondea Amapolaren edertasunaz liluratuta geratuko da; hala ere, *Musuaren kondaira* tarteko, ezinezko maitasuna izango da. Tribuko amak, Ulitak (Dorita Murgia) kondaira zertan

datzan azalduko du: "Amapola musukatzen duen gizona hil egingo da".

Edozelan ere, Mariano kondeak kondairari eta Ivanen hase-

Mario kondea Amapolaren edertasunaz liluratuko da

Obraren girotzea ezin hobea izan zen; benetako gaztelua irudikatu zuten

rrerari aurre egin eta Amapola musukatu egingo du.

GIOTZE BIKAINA

Lan ona egin zuten elkarteko kideek. Aipatzekoa izan zen, era berean, obraren girotzea; dekoratzaile eta jantzigileen lana bikaina izan zen. Hala, ikuskizuna hasi aurretik, elkarteko presidenteak esker ona eman nahi izan zien oholtzaren atzealdean lanean aritzen diren guztiei: ile-apaintzaileak, makillatzaileak, argitzaileak eta Amaiko langileak, besteak beste.

Gogoan izan zuten Juan Artzamendi zena ere; zapatuan beteko zituen urteak Artzamendik. Hain zuzen, hari eskaini zioten zapatuko ikuskizuna.

'LA LEYENDA DEL BESO', ARRASATEN

RUTH OSINAGA | ANTZEZLEA

"Herritarrek, urtero bezala, oso erantzun ona eman dute"

A.E.

Aste bukaerakoa hirugarren zarzuela izan du Ruth Osinaga abeslari arrasatearrak. Oraingoan, Amapolaren papera egitea egokitu zaio, eta estreinaldian bikain aritu zen.

Urtero bezala, aurten ere aretoa lepo bete da. Pozik egongo zarete ikuskizunak izan duen erantzunarekin.

Bai, aretoa bete egin da eta herritarrek oso erantzun ona eman dute. Nik uste dut jendea pozik geratu dela.

Denbora luzea eman duzu papera ikasten?

Bai. Zaila izaten da testu guztia buruz ikastea; azkeneko momentura arte egoten gara entseatzeko, eta, hala ere, zuzenean beti izaten dugu akatsen bat edo beste. Martxoan hasi ginen entseguekin; hasiera batean astean behin elkartzeko ginen, eta, egia esan, zarzuela ikasteak ez digu ordu askorik kentzen.

Bukaeran bai, azkeneko hilabeteetan ordu dezente sartzen ditugu; azken *esprinta* egin behar izaten da.

Txikitatik datorkizu abesteko zale-tasuna?

Bai, musikagintzan txikitan hasi nintzen; lehenengo solfeoan hasi nintzen eta gero pianoa jotzen ikasi nuen. Gerora, abesten jarraitu nuen eta titulua ateratzera animatu ninduten.

Elkarte lirikoan aukera polita ikusi dut gustatzen zaidana egiteko, eta aukera aprobetxatu besterik ez dut egin.

Orain arte egin diren zarzueletan ere parte hartu duzu?

Orain arte bi zarzuelatan hartu dut parte eta oraingo hau hirugarrena izan da. Beste bietan ere protagonista papera egitea egokitu zait, eta gustura nago egindako lanarekin.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

"Datorren astean izango dugu egindako lana ospatzeko aukera"

"Elkarte lirikoak aukera ematen du abesteko, eta nik aukera hori aprobetxatu dut"

Asteburuko bi emanaldiekin ez da bukatu ikuskizuna; izan ere, datorren astean ere Amaian ikusiko zaituztegu.

Bai, datorren astean, egubakoitzean eta zapatuan arituko gara, ordu berean. Zapatuan azken ikuskizuna egingo dugu, eta orduan izango dugu ospatzeko aukera.

Eta datorren urteari begira, zer?

Zerbait pentsatzen hasi gara dagoeneko. Oraindik ez dugu ezer erabaki, baina ideien bat badugu. Garrantzitsuenak denok parte hartzea eta ikuskizunak gozatzea da.

• LEHENENGO IKUSLEEN IRITZIAK



ALICIA ETA MARIA |
MIRANDA DE EBRO

"Orkestrako zuzendaria senidea dugu, eta horregatik etorri gara zarzuela ikustera"

Alicia eta Maria Mirandatik etorri ziren Amaia antzokira *La leyenda del beso* ikustera: "Orkestrako zuzendariaren senideak gara, eta horregatik etorri gara. Iaz ere izan ginen, baina orduan, euskaraz zenez, gutxi ulertu genuen. Aurtengoa ulertu egin dugu eta asko gustatu zaigu. Abeslariak eurek lan polita egin dute oholtza gainean".



EVA |
ARETXABALETA

"Izugarrizko meritua dute antzezleek"

"Bigarren urtea da zarzuela ikustera etortzen naizena eta uste dut hemendik aurrera urtero etorriko naizela. Meritu handia dute antzezleek. Egia esan, oso ondo aritu dira eta antzokia bete dute".



KARMEN, ANTONI ETA TERE | OÑATI

"Oso polita izan da ikuskizuna; beste urte batzuetan ere etorri izan gara, eta asko gustatu zaigu"

"Benetan ondo aritu dira aurten ere Izaskun Murgia elkarteak. Ez da zarzuela ikustera gatozen lehen aldia, beste batzuetan ere izan gara Amaian. Herriko jendea izateko, oso ondo egiten dute", hala adierazi ziguten oñatiar lagun horiek.

Girotzeari dagokionez: "Dekoratuak asko gustatu zaizkigu, benetakoak ziruditen. Profesionala ez den jendea izateko maila ona erakutsi dute", gaineratu ziguten.

• DENETARIKO UNEAK IZAN ZITUEN ZARZUELA



KONDEA ETA BERE LAGUNAK. Gazteluan elkartu ziren ospakizunetarako. Bertan, ehiza kontuak izan zituzten mintzagai eta une hunkigarri bezain alaiak eskaini zituzten, Amaian geundenon gozamenerako.



BASURDEAREN ERASO. Gaez, basurde batek Amapola ederrari eraso egin zion. Ijitoek Mario kondearen etxera eraman zuten Amapola eta bertan, Mariok bere maitasuna adierazi zion neska gazteari.



GIZONEN ARTEKO BORROKA. Zarzuela askotan bezala, *La leyenda del beso*-n ere maitasuna da ardatz nagusia. Amapolaren maitasuna eskuratzeko borroka egingo dute Mario kondeak eta Ivan ijitoak.



JOSETXO ARANTZABAL

Iñaki Urrutia aktoreak (eskuman) antzezle onenaren saria jaso zuen Texaseko AACT Nazioarteko Teatro jaialdian.

'PICASSO 1937, HISTORIA DEL GUERNICA' | SARI UGARI IRABAZI DITU OBRAK

Gerraren bidegabekeria salatu gura izan zuen Maskaradak

Atzerrian ibili ondoren, Oñatin aurre-estreinatu dute 'Picasso 1937, historia del Guernica' antzezlana

Arantzazu Ezkibel

Ikuskizun zoragarria eskaini zuen Bilboko Maskarada taldeak egubakoitzean, Oñatiko Santa Ana antzokian.

PARISEN KOKATUA

1936. urtean kokatzen da obra. Espainiak gerra bizi du eta Errepublikako ordezkariak Parisen daude; horien artean, Picasso margolari aski ezaguna dago. Beste intelektual batzuekin batera, munduak genozidioaren aurrean duen jarrera salatu

guran dabil. Eta inspirazioa Balzac-en *Maisulan ezezaguna* obran aurkitu gura dute. Intelektual horiei guztiei zazpi aktorek ematen diete bizitza. Eta lan bikaina egiten dute Carlos Paneraren zuzendaritzapean. Bestalde, abia-

Santa Ana aretoak ikuskizun bikaina batu zuen, zuzeneko musika eta guzti

puntua hori izanik eta eszenografia bikainaren laguntzarekin, Santa Ana antzokian hainbat artistaren obrak ikusi ahal izan genituen ikus-entzunezkoek lagunduta. Eta ezin aipatu gabe utzi zuzeneko musika; Juan Perez Menak eta Aitor Mendietak maisutasunez jantzi zuten antzezlana, gitarra eta ahots soilarekin.

ERAKUSKETA UNIBERTSALA

Antzezlanak Picassoren obra ezagunaren sorrera erakusten du.

Picassoren 'Gernika' obra ezagunaren nondik norakoak erakutsi zizkiguten

Errepublikaren ordezkariak 1937an ospatuko den Erakusketari Unibertsalerako enkargua egingo diote malagako margolariari. Pintzela eskuetan eta Dora Maar maitalearen laguntzarekin Santa Ana aretoko atze-oihala margotzen ikusiko dugu Picasso.

Iñaki Urrutia, Picasso, lanean ari zen bitartean, Katie Melua kantariaren *Market day in Guernica* abestiak ikusleen belarriak goxatu zituen. Zuzeneko musika eta ikus-entzunezkoak ondo uztartu zituzten Maskarada taldekoek Oñatiko estreinaldian.

Atzerrian sari asko jasotako antzerkia izan arren, Santa Ana aretora ez zen jende asko hurbildu egubakoitz iluntzean. Hala ere, bertaratutako ikusleek txalo zaparradaz agurtu zuten Bilboko antzerki taldea.

Danbaka

Publikoaren Saria

Hemen, orain arteko sailkapena. Bozkatzeko hiru aukera daude: *danbaka.com* webgunean; SMS bidez: *danbaka* [laga tartea] *taldearen izena* eta bidali 5767 zenbakira. SMSaren kostua 1,20 euro+BEZa. Eta Espalioan jarritako kutxetan.

- 1 **DRAKES**
ONATI
Botoen %20,51
- 2 **KLAKSON**
ANTZUOLA-ZUMARRAGA
Botoen %14,65
- 3 **ABY-KEM**
BERGARA
Botoen %11,11
- 4 **ANAL BAG**
ARRASATE
Botoen %9,15
- 5 **RAUL LASA**
ARRASATE
Botoen %9,06
- 6 **SCAM**
BERGARA
Botoen %6,57
- 7 **UNÑEA**
ONATI
Botoen %6,19
- 8 **THE 5 TWISTERS**
ARRASATE
Botoen %5,97
- 9 **BELCEBLUES**
BERGARA
Botoen %2,84
- 10 **IGOR**
ARETXABALETA
Botoen %2,41
- 11 **OZEN**
ARRASATE
Botoen %2,22
- 12 **MALENKONIA**
ONATI
Botoen %2,08
- 13 **LOS CRETINOS**
ARRASATE
Botoen %1,57
- 14 **LITTLE, LITTLE, MUCH**
ARRASATE
Botoen %1,55
- 15 **MATX**
ELGETA
Botoen %1,53
- 16 **YOTOX**
BERGARA
Botoen %1,36
- 17 **AZKAITER PELOX**
BERGARA
Botoen %0,43
- 18 **MAHASTER RIVER**
BERGARA
Botoen %0,31
- 19 **INALECTRIK**
ARETXABALETA
Botoen %0,26
- 20 **JIM TNT & AMAIA**
ARRASATE
Botoen %0,14

DANBAKA))))

Aukeratu zure talderik gustukoena SMS* bidez

danbaka [laga tartea] taldearen izena eta bidali 5767 zenbakira.

INFORMAZIO + www.danbaka.com

* SMSaren kostua 1,20 euro+BEZ.



JOSETXO ARANTZABAL

Pirritx, Mari Motots, haren ama eta Porrotx, zapatuan ohol-tza gainean.

PAILAZOAK | IKUSKIZUN BERRIA ESTREINATU ZUTEN ESKORIATZAN

Mari Motots lagun berria egin zuten zapatuan haurrek

Dantza egin, abestu, abenturak bizi izan...; ez zuten atsedenik izan pailazoekin Eskoriatzan

Jon Berezibar

Sarrera guztiak aurrez salduta, urteroko harrera beroa egin zuten pailazoei Eskoriatzako txikitxoek. Kantu, txantxa, erokeria eta dantzaz jositako ordubete luzea izan zen zapatu arratsaldekoa, eta neska-mutikoen zalantzarik ez zuten izan pailazoekin batera barre egin eta jolasteko. Urtero estreinatzen dute lana Pirritx eta Porrotxek Eskoriatzan, eta aurten *Mari Mototx* ikuskizuna ekarri dute.

Parke eder baten bizi diren amaren eta alabaren istorioa da *Mari Motots*-ena. Eta, istorioaren aitzakiarekin, pobreziaz eta naturaz hitz egin nahi izan dute oraingoan Euskal Herriko pailazorik ezagunenek. Bi protagonista horiekin ezagutu zituzten zapatuan Pirritx, Porrotx eta Eskoriatzako neska-mutikoen parkeko sekretu eta abenturak. Haurrek adi-adi jarraitu zituzten esandakoak, baina dantza egin eta kantatzeko aukera izan zuten ere ez zuten hutsik egin eta, ohi bezala, guztia eman zuten.

'MAITE ZAITUT'

Amaitzeko, haur eta ez hain gaztetxoek *Maite Zaitut* udako ereserki eta dantzarekin amaitu zuten. Horrekin, gurasoak eta guzti animatu ziren kantu eta dantza egitera. Ohi bezala, saioaren amaieran pailazoak ohol-tzatik jaitzi eta haur eta guraso-

ekin egon ziren, musu eta besarkada artean. Batek baino gehiagok apuntatuko zuten Olentzeroren zerrendara Pirritx eta Porrotxen disko berria...

• ZER IRUDITU ZAIZUE IKUSKIZUN BERRIA?



GARI | ESKORIATZA

"Dantzan ez, baina kantuan aspertu arte ibili naiz. Iaz ere egon nintzen Pirritx eta Porrotx ikusten eta aurtengoa bezain beste gustatu zitzaidan iazkoa ere. Porrotx gustatzen zait gehien".



MARTA | ESKORIATZA

"Sakelako telefonoaren kamera hartu eta argazkiak atera dizkiet Pirritx eta Porrotxi. Asko gustatu zait ikuskizuna, nahiz eta abesti eta dantza berriak oraindik ezagutzen ez ditudan".



JOSETXO ARANTZABAL

Santa Kurtz ermitan aurkeztu zuen liburua Jokin Zubiak.

Zañartu auzoaren gaineko liburua argitaratu dute

Oñatiko auzoaren gaineko kontuak eta irudiak batu ditu Jokin Zubia egileak

A.G.

Zapatuan aurkeztu zuen Jokin Zubia oñatiarrak *Zañartu, hamaika kontu eta irudi* izeneko liburua. *Zañartu* auzoko baselizan aurkeztu zuen, Lourdes Idoiaga Oñatiko alkatearen eta hainbat auzotarren babesarekin. Urtetan auzoan izan diren hainbat gertakari jaso ditu liburuan eta 150 argazkirekin jantzi du; horietako asko oso zaharrak, gainera.

Aurten ehun urte bete ditu *Zañartu* auzoan dagoen Zela-

kua baserriko Santa Kurtz ermitak, eta mendeurrena ospatzen zuten auzoko talde batek. Horixe izan zen, hain justu, liburuaren abiapuntua. Hasieran, Zelakuako ermita eta eskolan oinarritzekoa zen, "azkenean, ordea, ez gara horrekin konformatu", Zubiaren esanetan, eta *Zañarturen* gainean aspaldiko agiriak esaten dutena badu dute. DVDa ere kaleratu dute. Liburua eta DVDa salgai daude 25 eurotan Oñatiko liburu dendetan eta Turismo Bulegoan.

Ruper Ordorikak bere azkeneko diskoa *-Memoriaren mapa-* aurkeztu zuen egubakoitzean Bilboko Kafan Antzokian. Oñatiarrak, lan horretarako, Joseba

Sarrionandiarekin berbak erabili ditu. Diskoak aldaketa bikoitza ekarri du Ordorikarentzat: batetik, Elkar diskoetxera itzuli da; eta bestetik, bakarrik grabatu du,

gitarraren laguntza soilarekin. Abenduaren 15ean emango du lehenengo kontzertua, Tafallan, eta ibarrera etortzeko asmoa ere badu; urtarrilean Amaia antzokira.

RUPER ORDORIKA | KANTARIA

"Nigan oihartzuna sortzen duten idazleak aukeratzen ditut kantuetarako"

Arantzasu Ezkibel

Diskoan erbesteaz hitz egiten duzu. Gai nagusia dela esan daiteke?

Ez, ez dut uste. Nik uste dut ardatz asko daudela, gai asko. Baina idazlea ezagututa, Joseba Sarrionandia ezagututa, nik uste dut erbesteak badela bere gai zentralak bat. Hala ere, haren irakurleak direnak harritu egingo dira. Nik uste dut badirela ikusi gabeko testu pare bat disko honetan. Ez da gai bakarra; maitasuna ere aski gai zentrala da diskoan, denetarik dago.

"Sarrionandiaren hitzek nigan sortzen duten oihartzunaren ospakizuna da diskoa". Zer esan nahi duzu?

Dagoeneko zazpi abesti grabatu ditut Sarrionandiarekin, batzuk aspaldi batekoak. *Pott* aldizkariaren sasoian ere asko egoten ginen elkarrekin eta aspaldiko laguna dudala esan daiteke. Nik beti abestu izan ditut haren letrak, baina halako batean pentsatu nuen gustura egingo nukeela disko oso bat haren letrekin, baldin eta askatasuna baneukan gauzak aldatzeko. Hau da, ez nuen poema kantaturik egin nahi, baizik eta nire esparrura ekarri gura nituen haren berbak.

Galdera da zergatik aukeratu ditudan abesti batzuk eta ez besteak. Nik beti esan dut kantutako oso gauza sinpleak direla: berba gehi doinua. Kasu batzuetan beste hirugarren gauza bat ere lortzen da, eta horri nik oihartzuna esaten diot. Nigan oihartzun hori sortzen duten idazleak aukeratzen ditut, eta Sarrionandia horietako bat da.

Diskoa grabatzerakoan ideia sendoak zenituen ala ikuspuntua erabakitzea kostatu egin zitzaizun?

Kasu honetan aldaketa hain zen handia...; izan ere, taldearekin kantuak osatuz gero, teknikoki estudioan sartzeko orduan gauzak argi izan behar dituzu. Nondik nora ibiliko zaren eta ze tresna erabili beharko dituzun.

Disko honetan desberdina izan da; asmoa neure artean osatzea zen, kantuak neuk ixtea. Neure gogo horixe zen, eta horregatik egin dut horrela.

Orduan, esan daiteke diskoa hurbilagoa dela?

Ez dakit zer esan. Nik esango nuke baietz. Baina horrek konparazioan esan nahi du aurrekoak ez direla hurbilak. Orduan, nik uste dut norbera bakarrik



JOSETXO ARANTZABAL

Diskoaren aurkezpenaren biharamunean elkartu ginen Ruper Ordorikarekin Oñatiko unibertsitatean.

gitarrarekin aritzeak hurbiltasun bat dakarrela, baina hori esan beharrik ez dago.

20 urte luzeren ondoren Elkar diskoetxera itzuli zara. Diskoetxe aldaketa soila izan da ala lan egiteko moduan ere eragin du?

Nik uste nuena baino aldaketa handiagoa izan da. Lehendabiziko bost diskoak Elkarrekin atera nituen, garai haietan. Lehen esan dudana moduan, dis-

koa bera aldaketa handia izan da, eta tartean diskoetxe aldaketa sartu denez, ez da gauza samurra izan. Baina askatasun handia izan dut, eta niretzat hori da garrantzitsua.

Lehen diskoa grabatu zenuenetik denbora pasa da. Zer ikasi duzu tarte horretan?

Askotan, datorrena ahal bezala hartzen dut eta ez naiz azterketa handirik egiten ibiltzen.

"Diskoa halako gordin egiten ausartzeko, beste bide guztia ibili beharra dago"

"Diskoetxe aldaketak nik uste baino eragin handiagoa izan du grabazioan"

"Nire ustez, musika da euskal esparruan bizien eta indartsuen dagoen atala"

"Gehiago da aurrekoarekin lotzen nauena aldatzen nauena baino"

Lehenengo diskoa 1980an egin nuen Bernardo Atxagaren testuekin, artean idazle ezezaguna zela. Gero, nire testuak idazten hasi nintzen, tartean Sarrionandienak eta Jose Mari Iturralderekin sartuta.

Badago bilakaera bat, gauzak aldatzen doaz, baina norbera beti ikusten du aurrerapausoak eman beharra. Eta jakina da pauso bat eman ahal izateko aurreko pausoa eman behar dela lehenago. Zera esan gura dut: disko hau halako gordin egiteko ausardia hartzeko, beste bide guztia ibili beharra dagoela.

Laster Durangoko azoka izango da. Nola ikusten duzu euskal disko-gintza?

Testuingurua oso handia da, munduan zehar diskoaren alorra izugarritzko krisian dago, diskoa bera desagertu egingo delako.

Nik uste dut musika dela euskal esparruan bizien eta indartsuen dabilen atala. Talentu handia dago eta zaletasuna ere bai. Estudio onak, medio onak... Uste dut hurrengo pausoa dela esatea egiten den musika eskakizunetik

gora dagoela. Hau da, gutxiegi estimatzen da gehiegi dagoelako: edozeinek izan dezake etxean bizi guztian entzungo dituen kantuak baino gehiago. Halako betekada dago, jendeak begirunea galdu dio musikari.

Oraingo gizarteak musikarekin duen harremana ezberdina da, eta testuinguru horretan ikusi behar da hemen gertatzen dena.

Abenduaren 15ean egingo duzu lehen kontzertua, Tafallan. Kontzertuetara joango den jendeak zer ikusteko aukera izango du?

Disko hau ardatz hartuta, kontrabaxu-jotzailea eta biok bakarrik arituko gara; beraz, aldaketa handia da. Orain arte talde elektrikoarekin ibili naizen arren, tarte honetan bakarrik arituko naiz. Beste diskoetako kantuak ere joko ditugu. Nik ere izango dut zer ikasia, baina horretarako gaude. Musikaren ikasbidea luzea da.

Oso ezberdina izango den? Nik beti esaten dut gehiago dela egindakoarekin lotzen nauena aldatzen nauena baino.

Anje Duhalderen saioa, Eskoriatzako abenduko eskaintza hasteko

Kantautore lapurtarrak 'Sorminetan', disko berria, aurkeztuko du egubakoitzean, abenduaren 1ean, kiroldegian

Leire Kortabarria

Eskoriatzako Udalak aurkeztu berri du hemendik eta Gabonak arteko kultura egitaraua, eta hasiera ezin hobea izango du: hain zuzen, sasoi honetan urtero egiten duen bezala, Udalak musikari ospetsu bat gonbidatu du kontzertua egitera, eta aurten, Anje Duhalde da hori. Egubakoitzean, abenduak 1, egingo du emanaldia kiroldegian, eta sarrerak erosteko aukera dago Eskoriatzako ohiko lekuetan, Arrasateko Elkar dendan eta Aretxabaletako Arlutz tabernan. Kantautore lapurtarrak *Sorminetan* izeneko diskoa aurkeztuko du Eskoriatzan.

Egun berean, egubakoitzean, eta domekara bitartean, euskarazko jostailu eta CD-ROM erakusketa zabalduko du Udalak. Kultura etxean egongo da erakusketa 17:30etik 20:00etara eta domekan, 12:30etik 14:00etara. Adinen eta jostailu edo joko motaren arabera sailkatuko dituzte artikulak. Umeek horiekin jolas egiteko aukera izango dute, helduekin baldin badoaz.

Horiez gain, aurrerago, Gabonetako sukaldaritzeta eta capoeira ikastaroa izango dira, besteak beste.

AITZORROTZ ELKARTEA

Udalak antolatutako ekintzez gain, Aitzorrotz kultura elkarteak eta Inkernu tabernak ere egitarau bat prestatzen dute. Euskararen Egunean, datorren domekan, hasiko dira abenduko ekitaldiak: egun horretan, talo-dastatzea eta kantu bazkaria egingo dituzte.

Hurrengo asteotan, Virginia Imazen ipuin kontaketa emanaldia, Johnny Cashen bertsioren kontzertu akustikoa... izango dira.

Labur

Iazko Jokin Zaitegi lehiaketako itzulpena aurkeztuko dute

Iazko Jokin Zaitegi itzulpen sariketako emaitza, *Maitalea* liburua, aurkeztuko du AED elkarteak egunean, hilak 30, Arrasateko udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 18:30ean. Harold Pinterrek irabazi zuen iaz Literaturako Nobel saria, eta haren antzerki-lan batzuk euskarara itzuli behar ziren sariketan.

Maitalea eta beste antzerki-lan batzuk da liburuaren izenburu osoa. Itzultzailea Iñigo Errasti izan da. Liburu hori Durango azokan egongo da salgai.

Leo Bassi aktore polemikoaren ikuskizunerako sarrerak salgai

Leo Bassi aktore italiarrak *La Revelación* izeneko antzezlan egingo du Elgetan, Espaloia antzokian, abenduaren 2an, 22:30ean. Euskal Herrian emanaldi hori bakarrik egingo du, eta sarrerak erosteko aukera dago Espaloian bertan, 12 eurotan Goibekoko bazkideek eta 15 eurotan gainerakoek.

Erljioa eta denetariako sinisemenak dira antzezlanaren gaia, eta bere ohiko estilo probokatzailean gainbegiratu ditu Leo Bassik, Aita Santutik hasi eta telebistako predikarietaraino.

Espainiako etorkinen gaineko bere liburuaz berba egingo du Jon Maiak

Jon Maia bertsolari eta idazlea Antzuolara etorriko da *Riomundo* bere eleberraren gaineko gogoeta batzuk ekartzera. Eguenean izango da, Orlanen, 19:00etan.

Extremadurako eta Zamorako etorkinen ondorengoa da Jon Maia, eta 50-60ko hamarkada inguruan Euskal Herrira etortzen den familia baten istorioa kontatzen du liburuak, eta hainbat topiko desmuntatzen ditu. Maiaren lehen eleberria da, Txalapartak iaz argitaratua, eta arrakasta handia izan du.


Hitzorduak

EMANALDIAK | Bi antzezlan eta Murugarren, Rueda eta Pettiren saioa Politeknikoan

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak kultura ekintzak antolatu ditu aste honetarako.

Egitaraua gaur, astelehena, hasiko da *Bob? Nor da Bob?* izeneko antzezlanarekin. Jon Urraza eta Jon Zubiaga aktoreek antzeztuko dute umorezko lan hori. Bihar, martitzena, *Alquimia* delako antzezlan egingo dute (argazkian). Eta etzi, eguaztena, kontzertua izango da: Txuma Murugarrenek, Rafa Ruedak eta Pettik elkarrekin grabatutako *Hauxe* diskoko abestiak joko dituzte.

Ekintza guztiak eskolako 6. eraikuntzako areto nagusian izango dira, 18:30ean.



ZINEMA I

- **American splendor** filma emango dute Elgetan
Film hori emango dute etzi, eguaztena, Espaloia antzokian, 21:30ean.
- **Caché** filma emango dute Oñatiko zineklubean
Eguenean, azaroak 30, emango dute film hori zineklub emanaldian, kultura etxean, 20:00etan.

IKUSKIZUNAK I

- **Bertso kabaret emanaldia egingo dute Bergaran**
Emetik izeneko bertso kabareta egingo dute Onintza Enbeitak, Oihane Pereak eta Iratxe Ibarrak egubakoitzean, abenduak 1, Pol-Pol tabernan, 22:30ean. Topaguneko Kultur Errotak antolatzen du.

ANTZERKIA I

- **Umeendako ipuin kontaketa egingo dute Eskoriatzan**
5 urtetik gorako umei ipuinak kontatuko dizkie Maite Franco kontalariak egunean, hilak 30, liburutegian, 18:00etan.
- **Helduendako ipuinak kontatuko dituzte Bergaran**
Zaragozako Oswaldok Pai kontalariak helduendako ipuinak kontatuko ditu etzi, eguaztena, Pol Pol tabernan, 22:30ean. Oihulari Klown taldeak antolatu du emanaldia, XI. Ipuin Kontaketaren Zirkuituaren barruan.

ERAKUSKETAK I

- **Autobidearen eragina salatze erakusketa**
Autobideko lanen eraginaren gaineko argazki erakusketa dago Eskoriatzan, *Txikiziorik* ez izenburuarekin. Inkernu tabernan izango da ikusteko aukera azaro osoan.
- **Lurrik Gabeko Nekazarien mugimendua, erakusketa**
Brasilgo Lurrik Gabeko Nekazarien mugimenduaren gaineko erakusketa antolatu du Eskoriatzan Aitzorrotz kultura taldeak. Azaroaren 29ra arte dago zabalik kultura etxean.
- **Iñigo Arregi arrasatearrak eskultura erakusketa dauka**
Iñigo Arregi artista arrasatearrak altzairuzko 14 eskultura-lan ipini ditu erakusketan Gasteizko Felisa Navarro erakusketa aretoan. Eskulturak bakarrik erakusten dituen lehen aldia da. Cercas Bajas kaleko 2. zenbakian dago.

LEHIAKETAK I

- **Gabonetako marrazki lehiaketa bi herritan**
Eskoriatzako eta Leintz Gatzagako 6-12 urte bitarteko umeek Gabonetako marrazki lehiaketa parte har dezakete. Norberak marrazki bakarra aurkez dezake, ludotekan edo liburutegian.
- **Santamasetako kartel lehiaketako azken egunak**
Santamasetako kartel lehiaketa deitu du Udala Kultura Sai-

lak. Edozeinek parte har dezake, 50x70 cm-ko karteekin. Derrigorrezko testua hau da: *2006 Santamasak Arrasate*. Irabazleari 400 euroko saria emanango diote. Etzi, eguaztena, da mugaeguna.

• XV. Amodiozko Gutunen Berrigara lehiaketa

Amodiozko gutunen lehiaketa antolatu du Jardun elkarteak. 1992an edo lehenago jaiotako edozeinek parte har dezake. 450, 240, 150 eta 100 euroko sari bana emango dute. Lanak bidaltzeko mugaeguna urtarriaren 7a da. Argibide gehiago, honako webgunean: www.jardun.net.

• VI. Olentzero marrazki lehiaketa dago Bergaran

Seigarren urtez, Olentzeroren marrazkiak egiteko lehiaketa antolatu du Jardun elkarteak. Herriko Lehen Hezkuntzako ikasle guztiek parte har dezakete. Sariak abenduaren 18an banatuko dituzte kultura etxean, 18:00etan.

• **Orhan Pamuk turkiarraren nobela bat itzultzeko beka**
Orhan Pamuk aurtengo Literaturako Nobel saridunaren *Kar* nobela euskarara itzultzeko Jokin Zaitegi beka deitu dute AED elkarteak eta Elkar argitaletxeak. Irabazleak 9.000 euro jasoko ditu liburua itzultzeko. Oinarriak eta itzultzeko testua, honako webgunean: www.elkarlanean.com/jokinzaitegi.

Eguraldia



Bihar iritsiko den fronteak okertu egingo du eguraldia nabarmen

Haizeak hegotik jarraituko du gaur, baina pixka bat biziago ibiliko da. Garbigune ugari izango da zeruan, baina atzo baino hodei gehiago egongo da. Ez du euririk egingo eta temperaturak antzera jarraituko du. Baina beste fronte batek eguraldia okertuko du bihar. Zerua oso hodeitsu egongo da eta zapa-

rrada batzuk botako ditu, gehiago eta sarriago arratsaldean. Arratsaldean erabat freskatuko du. Eguaztenean oso lainotsu egongo da, baina ez du euririk egingo. Eguen eta egubakoitzerako onera egingo du berriz: ostarteak zabaldu egingo dira eta egubakoitzean igo egingo da temperatura.

Guardiako farmaziak

ARRASATE

Astelehena, 27	Ruiz Perez	Magdalena 31 (943 79 14 09)
Martitzena, 28	Zabala	Zarugalde 42-44 (943 77 16 30)
Eguaztena, 29	Azkoaga	Ferrerias 1 (943 79 15 15)
Eguena, 30	Azkoaga	Iturriotz 17 (943 79 79 99)
Egubakoitza, 1	Corcuera	Maisu Aranbarri 1 (943 79 22 26)

BERGARA

Astelehena, 27	Guallar	San Antonio 5 (943 76 11 05)
Martitzena, 28	Estella	Matxiategi 5 (943 76 19 63)
Eguaztena, 29	Mozos	Iparragirre 2 (943 76 12 15)
Eguena, 30	Urriticoechea	Oxirondo 4 (943 76 11 74)
Egubakoitza, 1	Zabala	Barrenkale 25 (943 76 16 87)

OÑATI

Astelehena, 27	Barrenetxea	Kale Zaharra 1 (943 78 11 28)
Martitzena, 28	Barrenetxea	Kale Zaharra 1 (943 78 11 28)
Eguaztena, 29	Garate	Kale Barria 42 (943 78 05 58)
Eguena, 30	Garate	Kale Barria 42 (943 78 05 58)
Egubakoitza, 1	Juldain	Kale Barria 6 (943 78 11 28)

ARETXABALETA

Astelehena, 27	Fraile	Herriko Plaza 10 (943 79 21 99)
Martitzena, 28	Fraile	Herriko Plaza 10 (943 79 21 99)
Eguaztena, 29	Fraile	Herriko Plaza 10 (943 79 21 99)
Eguena, 30	Fraile	Herriko Plaza 10 (943 79 21 99)
Egubakoitza, 1	Fraile	Herriko Plaza 10 (943 79 21 99)

Telefono jakingarriak



OSASUNA / LARRIALDIAK

OSAKIDETZA (Larriald.)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 03 54 00
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63
Bergara	943 77 91 06

Eskoriatza	943 71 44 07	Laixan / Oñati	943 71 63 11
Leintz Gatzaga	943 71 47 46	Txirritola / Aram.	945 44 52 66
Oñati	943 78 04 11		

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	902 54 32 10
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Antzuola	943 76 61 81
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 77 12 64
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	902 24 02 02

DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99
Hilttegia (Zubillaga)	943 78 15 12
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 71 21 17
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34
Goibeko / Elgeta	943 78 90 85
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Idolaz / Antzuola	943 78 70 56
Jardun / Bergara	943 76 08 19

Hondakindegia Alternatiboak	
Arrasate	943 77 11 43
Bergara	943 76 44 42
Oñati	943 78 36 67
Kiroldegia	
Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola	943 76 60 65
Aramaio	945 44 53 74
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

Zozketak

BONOLOTOA

Astelehena, 20	1 • 8 • 17 • 22 • 32 • 34
Osagarria: 42 Itzulketa: 3	
Martitzena, 21	1 • 7 • 14 • 30 • 38 • 42
Osagarria: 48 Itzulketa: 2	
Eguaztena, 22	14 • 23 • 25 • 39 • 41 • 44
Osagarria: 22 Itzulketa: 3	
Egubakoitza, 24	9 • 10 • 19 • 28 • 36 • 48
Osagarria: 38 Itzulketa: 6	

ONCE

Astelehena, 20	88.695
Martitzena, 21	47.398
Eguaztena, 22	94.107
Eguena, 23	32.907
Egubakoitza, 24	19.135
Kupoitzarra (021 seriea)	

LOTERIA PRIMITIBOA

Eguena, 24	2 • 10 • 13 • 15 • 24 • 36
Osagarria: 7 Itzulketa: 6	
Zapatua, 25	1 • 35 • 37 • 39 • 40 • 41
Osagarria: 26 Itzulketa: 4	

Gazte zerbitzuak

BEKAK |

• **Teknologo eta ikertzaileak.** Eusko Jaurlaritza. Euskal nekazaritza eta arrantzako eta elikadurako sektorearen inguruko prestakuntza eskaintzeko beka. Epea: azaroaren 29a.
• **Literatura.** Elkar Fundazioa. Euskarazko literatura-sorkuntzarako beka. Modalitateak: poesia, nobela, entsegua eta gazte-literatura. Epea: abenduaren 19a.

LANA |

• **Landazaina.** Hernaniko Udala. Eskola graduatua edo LHI, eta euskararen 2. H. E. Epea: azaroaren 30a.
• **Laguntzaileak.** Bilboko Portuko Zamaketa eta Deszamaketa Elkarte Estatalak Bilboko Portuan dituen instalazioetan 21

laguntzaile-lanpostu betetzeko deialdia egin du. Epea: azaroaren 30a.
• **Kirol teknikaria.** Mutrikuko Udala. Lan jardunaldi erdian funtzionario plaza. Diplomatura edo LH-III titulua eta euskararen 3. H. E. Epea: abenduaren 9a.

EKINTZAK |

• **Ikasketak.** Euskal Herriko Unibertsitatea. Unibertsitatera sartzearen inguruko zalantzak argitzeko informazio-saioa Arrasateko Monterron jauregian, azaroaren 27an, 18:30ean.

IKASTAROA |

• **Komunikazio Teknikak.** Hezkide Eskola. Gizarte trebetasunen ikastaroa. Dohainik. Abenduak 12, 13 eta 14. CRAJen (Donostia).

ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
BERGARAKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea. 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4. 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net



Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Bertan salgai

ASTELEHENKO

Antzuola:

- Altzarte okindegia
- Martin okindegia

Elgeta:

- Kioskoa

Bergara:

- Bolintxo okindegia
- Ogizun okindegia
- Konde okindegia
- Olabe okindegia
- Mizpildi okindegia
- Plazako Kioskoa
- Txurrerua Kioskoa

Arrasate:

- Eroski merkatal guneko prentsa txokoa
- Balantzategi kioskoa
- Portaloiko kioskoa
- Usue paper denda
- Bolintxo Okindegia
- Kurruko okindegia

Aretxabaleta:

- Errasti kioskoa
- Ibarra estankoa

Eskoriatza:

- Dorleta liburudenda

Leintz Gatzaga:

- Labidea

Aramaio:

- Plazako kioskoa

Oñati:

- Haritza Kioskoa
- Ibarrondo Kioskoa
- Eskolatxo okindegia
- Arantxa okindegia
- Irizar okindegia
- Ogibari okindegia
- Olakua okindegia
- San Lorentzo okindegia
- Errota okindegia

Zorion agurrak



ARRASATE
June Santos
Azaroaren 21ean,
3 urte. Zorionak!
Arizmendi Sanvi
Txikiko lagunak.




ARRASATE (BEDOÑA)
Uxue Otxoa
Azaroaren 23an,
16 urte. Zorionak
eta ondo pasa
eguna! Etxekoak.



ARRASATE
Ainhoa Urizarren
Azaroaren 24an,
5 urte. Zorionak!
Arizmendi Sanvi
Txikiko lagunak.



ARRASATE
Naroa Fernandez
Azaroaren 29an, 4
urte. Zorionak
gurasoen eta
Elderren partez.



BERGARA
Andoni Goiti
Azaroaren 22an,
urteak. Zorionak,
aurten bai bero-
bero ezta?




BERGARA
Ander Maiztegi
Azaroaren 26an, 9
urte. Urte askotara-
ko! Begoñaren etxe-
koen partetik.



ARETXABALETA
Eider Martinez
Azaroaren 21ean,
6 urte. Zorionak eta
muhu handi bat.
Etxekoak.



ARETXABALETA
Xabier Zubillaga
Azaroaren 29an, 11
urte. Zorionak eta
muhu handi bat.
Izaba Itxaro.



ARETXABALETA
Ander L. Armentia
Abenduaren 3an, 8
urte. Zorionak eta
urte askotarako.
Etxeko guztiak.



OÑATI
Xabier Anduaga
Azaroaren 18an, 3
urte. Zorionak eta
muhu handi bat!
aitita eta amama.



OÑATI
Jon Madina
Azaroaren 25ean, 8
urte. Zorionak eta
muhu handi bat etxe-
ko guztien partez.



ESKORIATZA
Andres Agiriano
Azaroaren 30ean,
100 urte. Zorionak
eta besarkada bat.
Etxeko guztiak.

Hildakoak

Maria Cabeza Delgado | Eskoriatzan, azaroaren 26an. 77 urte.



ESKELAK
ASTELEHENKO
GOIENKARIAN

85 euro
943 25 05 01

Jaiotakoak



Maren Etxezarreta Irizar
Oñati • 3,030 kg. Azaroaren 15a.
Gurasoak: Juan Mari (Oñati) eta
Ainhoa (Oñati). Argazkian Maren
txikia kuman.



Lide Beitia Beitia
Oñati • 2,500 kg. Azaroaren 15a.
Gurasoak: Jose Antonio (Oñati)
eta Juana (Oñati). Argazkian kuman
bapo lo.



Aimar Sotil Martxena
Antzuola • 3,480 kg. Azaroaren 19a.
Gurasoak: Edurne (Bergara)
eta Alberto (Bergara). Argazkian
amamarekin.




Antton Oleaga Mugartza
Oñati • 3,270 kg. Azaroaren 21a.
Gurasoak: Irantzu (Oñati) eta Imanol
(Oñati). Argazkian amarekin.



Izar Itzazelaia Untzueta
Aramaio • 2,850 kg. Azaroaren 21a.
Gurasoak: Esther (Aramaio) eta Iñaki
(Aramaio). Argazkian amamarekin.



Alaitz Rodriguez Gomez
Arrasate • 3,240 kg. Azaroaren 22a.
Gurasoak: Silvia (Arrasate) eta Oscar
(Arrasate). Argazkian amarekin.



Ivan Salazar Arbuella
Arrasate • 3,800 kg. Azaroaren 24a.
Gurasoak: Isabel (Arrasate)
eta Roberto (Arrasate). Argazkian
amarekin.



Anouk Roos Altuna
Bergara • 3,800 kg. Azaroaren 24a.
Gurasoak: Leire (Bergara)
eta Yves (Gante). Argazkian aitaren
besoetan.



Maia Zurututza Souto
Eskoriatza • 3,800 kg. Azaroaren 24a.
Gurasoak: Marijo (Eskoriatza)
eta Koldo (Arrasate). Argazkian
amarekin.



Zoriondu ARRASATE IRRATIAN

Ikaskideak, lagunak edo
senitartekoak zoriondu
nahi badituzu, **ARRASATE
IRRATIAK** egunero ematen
dizu aukera hori.

Bidali eskaria:
irratia@goiena.com helbidera
edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Egunero,
zorion agurren tartea
ARRASATE IRRATIAN

FM107.7
**ARRASATE
IRRATIA**

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ASTELEHENKO GOIENKARIAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia, eta emaitza ezusteko ederra!

Gaur irratian

Arrasate Irratia

FM 107.7

'Igo autobusera' | 10:00

**Arkaitz Garciandia
'Goenkaleko' aktorea**

Telesail ezaguneko *Markel* elkarriketatuko dute gaur. Telesaileko hainbat kontu azalduko dizkigu aktoreak, baina baita beste hainbat gauza ere. Esaterako, HUHEZIn ikasten ari den Ikusentzunezko komunikazioen gainekoak. 11:15ean izango da.

Oñati Irratia

FM 107.4

'Eguerdiko saioa' | 12:15

**Etixerat elkarteko
ordezkariei elkarriketa**

Etixerat elkarteko Iñaki Usandizaga eta Ines Zubia elkarriketatuko dituzte gaurko irratsaioan. Egungo egoera nola ikusten duten eta ETArekin su-etenak espetxeetako egoeran izan duen eragina aztertuko dute, besteak beste.

Euskadi Irratia

FM 104.4

'Faktoria' | 10:40

**Jakien 50. urteurrena:
Guggenheim**

Radio Euskadi

FM 98.2

'Boulevard' | 10:40

**Hondar organikoen
birziklatzea Jundizen**

Herri Irratia

FM 99.8

'Loiolako porrusaldan' | 12:05

**Amodiozko gutunen
lehiaketa Bergaran**

GOITB programazioa

Astelehena, 27



**'Eltze beroa': ondoak
protagonista
18:15**

Donamariako Bentako Haizea Luzuriagak hiru ondo plater gertatuko dizkigu. Ttipi-Ttapa telebistak ekoiztutako saioa da gaurkoa.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.

13:45 Gaurkoak.

13:47 Teknopolis.

14:15 Hitz bitan.

14:45 Albisteak.

15:15 Ilunpean.

15:45 Gaurkoak.

15:47 Gatza ta berakatza.

16:00 MKT.

16:15 Jazzmina.

16:45 Albisteak.

17:15 Marrazki bizidunak.

17:45 Gaurkoak.

17:47 Berbaire.

18:15 Eltze beroa.

18:45 Albisteak.

19:15 Danbaka.

19:45 Berriak.

20:15 Marrazki bizidunak:

Sherlock Holmes.

20:45 Berriak.

21:15 Harmailatik.

21:45 Gaurkoak.

21:47 Erreportajea: Oidui

txabola berritzen.

22:15 Hasiberriak.

22:45 Berriak.


23:15 Didjeridu.

23:45 Gaurkoak.

23:47 Ikusmira.

00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 28



**Gaurkotasuneko gaiak
'Berbaire' saioan
21:15**

Ainhua Larrañaga, Larraitz Ugarte eta Juan Kruz Mendizabal izango dira mahaiaren bueltan, Gorka Etxabek (irudian) moderatuta.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan.

13:45 Gaurkoak.

13:47 Harmailatik.

14:15 Erreportajea: Oidui

txabola berritzen.

14:45 Albisteak.

15:00 Didjeridu.

15:45 Gaurkoak.

15:47 Hasiberriak.

16:15 Ikusmira.

16:45 Albisteak.

17:15 Marrazki bizidunak.

17:45 Gaurkoak.

17:47 Ilunpean.

18:15 Gatza ta berakatza.

18:30 MKT.

18:45 Albisteak.

19:15 Harmailatik.

19:45 Berriak.

20:15 Marrazki bizidunak:

Nonochan.

20:45 Berriak.

21:15 Berbaire.

21:45 Gaurkoak.

21:47 Danbaka: Los Cretinos.

22:15 16mm.

22:45 Berriak.

23:15 Hitz bitan.

23:45 Gaurkoak.

23:47 Harmailatik.

00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 29



**Joserra Perez, 'Debarri'
saioan
21:47**

Joserra Perez Gatzagako alkatea izango da gaurko gonbidatua. Alberto Gorritibereak gidatuta, ikus-entzuleek ere galderak egiteko aukera dute.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.

13:45 Gaurkoak.

13:47 Berbaire.

14:15 Danbaka: Los Cretinos.

14:45 Albisteak.

15:15 16mm.

15:45 Gaurkoak.

15:47 Hasiberriak.

16:15 Hitz bitan.

16:45 Albisteak.

17:15 Marrazki bizidunak.

17:45 Gaurkoak.

17:47 Harmailatik.

18:15 Erreportajea: Oidui

txabola berritzen.

18:45 Albisteak.

19:15 Danbaka.

19:45 Berriak.

20:15 Marrazki bizidunak:

Sherlock Holmes.

20:45 Berriak.

21:15 Debarri:Leintz Gatzaga.

21:45 Gaurkoak.

21:47 Debarri-Leintz Gatzaga.

22:15 Hasiberriak.

22:45 Berriak.

23:15 Berbaire.

23:45 Gaurkoak.

23:47 Erreportajea.

00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 30



**'Danbaka' musika
lehiaketa: Yotox
21:47**

Danbaka musika lehiaketaren barruan, Yotox bergarrek Elgetako Espaloia aretoan egin zuten emanaldia ikusgai izango da gaur gauean.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan.

13:45 Gaurkoak.

13:47 Debarri:Leintz Gatzaga.

14:45 Albiste aurrerapena.

15:00 Teknopolis.

15:45 Gaurkoak.

15:47 Erreportajea.

16:15 Ikusmira.

16:45 Albisteak.

17:15 Marrazki bizidunak.

17:45 Gaurkoak.

17:47 Eltze beroa.

18:15 16mm.

18:45 Albisteak.

19:15 Gatza ta berakatza.

19:30 MKT.

19:45 Berriak.

20:15 Marrazki bizidunak:

Nonochan.

20:45 Berriak.

21:15 Berbaire.

21:45 Gaurkoak.

21:47 Danbaka: Yotox.

22:15 Didjeridu.

22:45 Berriak.

23:15 Erreportajea.

23:45 Gaurkoak.

23:47 Ilunpean.

00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 1



**'Sherlock Holmes'
marrazki bizidunak
13:20, 17:15, 20:15**

Sherlock Holmes detektibe azkarraren abenturekin gozatzeko aukera daukate gazte-txoeak. Watson da detektibearen lagun leiala.

13:15 Emisio hasiera.

13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes.

13:45 Gaurkoak.

13:47 Berbaire II.

14:15 Danbaka:

Mahaster River.

14:45 Albiste aurrerapena.

15:15 Eltze beroa.

15:45 Gaurkoak.

15:47 Didjeridu.

16:15 Mandio.

16:45 Albiste aurrerapena.

17:15 Marrazki bizidunak:

Sherlock Holmes.

17:45 Gaurkoak.

17:47 Debarri: Oñati.

18:15 Debarri: Oñati.

18:45 Albiste aurrerapena.

19:15 Erreportaia. Lurraren opari gorria.

19:45 Berriak.

20:15 Marrazki bizidunak:

Sherlock Holmes.

20:45 Berriak.

21:15 Teknopolis.

21:45 Gaurkoak.

21:47 Hitz Bitan.

22:15 Ilunpean.

22:45 Berriak.

23:15 Berbaire II.

23:45 Gaurkoak.

23:47 Jazzmina.

00:15 Emisio amaiera.

Kamera aurrean



"Hemen gero eta arazo gehiago ditugu ekoizleok: gero eta lur gutxiago dugu nekazaritzan jarduteko"

TOMAS LARRAÑAGA | ANTZUOLAKO LAPATZA BASERRIKOA Berriak, 2006-11-21



"Adierazpen askatasuna: bakoitzak eskubidea du nahi duen eran azaltzeko, batez ere abesti batean"

FERNANDO ETXABARRI | SOZIEDAD ALKOHOLIKA-KO MANAGERRA Berriak, 2006-11-22

Erreportajea

'Oidui txabola berritzen'

Gaur, astelehena, 21:47an



DANBAKA))))
DEBAGOIENeko II. MUSIKA LEHIAKETA

4. KONTZERTUA
ABENDUAK
1
Egubakoitza | 22:30
Elgetako Kafe Antzokia

JIM TNT
ARRASATE

RAUL LASA
ARRASATE

UNNĒA
OÑATI

SCAM
ARETXABAleta

KAMISetak SALGAI!

INFORMAZIO +
www.danbaka.com





Hamarrekoa

AINZANE EZENARRO | POLITIKARIA

"Egia da legebiltzarkideok harreman ona dugula, lankideak gara danok"

Oihana Elortza

1. Ze oroitzen duzu unibertsitateko urteez? Oso onak. Uste dut gazte guztiek egin beharko luketela hori, beste pertsona batzuekin etxea osatu eta elkarbizitzaren ikasi. Bergarakoak ziren nire etxebizitza-kide batzuk, eta oraindik badut harremana eurekin.

2. Parranda egiten zenuten eguenetan? Ez beti, baina bai. Sasoi bakoitzean sasoi guztiak egin behar dira eta ikasleek parranda ere egin behar dutela uste dut; ikasketak ahaztu gabe, noski. Biak egin daitezke batera, eta biak ondo.

3. Politikari izan gura zenuelako hasi zinen Soziologia Politikoak ikasten? Kazetaritzako azken urteekin batera hasi nintzen beste karrera hori ikasten. Banuen gogoak jakiteko nola hartzen diren erabakiak, nortzuek hartzen dituzten edo nola kudeatzen den herri bat.

4. Irratia ala musika entzuten duzu Getarian? Ala ezer ez? Aprobetxatzen

dut deiak egiteko, esku libreenkin. Bestela, musika entzuten dut, ez naiz albistegiaren zain egoten, pixka bat deskonektatzea gustatzen zait.

5. Sesta egunero egitea asko gustatzen ei zaizu. Bai, baina aspaldian ez dut egin. Hala ere, ez badut egiten ere, ez zait umorea aldatzen.

6. Tentsioa baretzeko joaten zara korrika egitea? Eserita ematen ditut eguneko ordu gehienak, ez dut ariketa handirik egiten lanegunetan, eta asteburuetan, tarteka, korrika egitera joaten naiz. Azken hamabost egun hauetan, ordea, ez naiz joan.

7. Egia da legebiltzarkideok harreman ona duzuela Legebiltzarretik kanpo? Bai. Azken finean, lankideak gara eta batzuekin harreman onak egiten dira, gainera. Legebiltzarkide batzuk lagunak ditut.

8. Gustatzen zaizu txakolina? Bai. Eta etxean bertan ere egiten genuen duela urte batzuk, gainera. Ardozalea ere banaiz, baina, egia esan, txakolina da ondoren ezagutzen dudana edaria.



GOIENKARIA

Getarian jaio eta Getarian bizi da Aintzane Ezenarro. 35 urte ditu eta bi semearen ama da. Legebiltzarrera joan behar duenean, ordu eta erdi ematen du autoan joaten eta beste horrenbeste etxera bueltatzen. Musika jartzen du askotan, deskonektatzeko. Moda ez duela jarraitzen dio, baina arropak gustatzen zaizkiola aitortu du.

9. Jantzeko, kolore beltza eta botak, ezta? Udan kolore argiagoak jantzen ditut, baina neguan beltza edo marroia askotan jantzen dut, kolore ilunak, askok bezala. Zuria eta botak ere bai.

10. Oraindik gaztea zara, baina kazetari ala politikari moduan hartuko duzu erretiroa? Auskalo! Baina, hala ere, ez dut uste bizi guztian politikaria izango naizenik.



Biharamuna

Iñigo Biain

Ahobete hezea

Zorion bero batekin hasi nahi dut gaurko nire zutabetxo hau: Zorionak **SARi** astean **Auzitegi Nazionalak** errugabetzat jo baititu **AVT** elkarteak jarraituko kereila babuaren ostean. **Soziedad Alkoholika** gasteiztarrek beti izan dira euskal musikaren esparru ezerosoan: hasteko, euren musika erradikalegia zen **Euskal Rock Erradikala** mugimendua indarra galtzen hasi zen 80ko hamarkada bukaera hartan (punkenkiak jebientzat, eta jebiegiak punkentzat). Gogorregiak ziren Arabako gizarte ez abertzalearentzat, eta anarkoegiak euskaldunentzat. Eliza katolikoa hasez geroz zuten **Black&Decker** kantuarrekin; **Nos vimos en Berlin**-ekin, berriz, judutarrak izan ziren aho-tsa altxatu zutenak, eta 15 urte beranduago zeresana ematen jarraitzen dute euren hitzek. Baina guzti honen gainetik gauza bat ukazina da: kontzertuak ematen jarraitzen dute (nahiz eta bat baino gehiago bertan behera gelditu), eta jotzen duten toki oro (Euskal Herrian zein atzerrian) lepo betetzen da. 80ko hamarkadako talde arabar gehienetan bezala, gaztelera izan da euren hizkuntza nagusia (euskara zertxobait erabili badute ere), baina bai euren, baita kartzelaratu nahi izan dituzten Terrorismoaren Biktimen Elkartekoei ere aurkitu diet baliokide euskalduna: Juan-ek gidatzen duen taldea (SA) Hezea bezala ber-bataiatuko dut (izerdia baitario euren musikari). Besteak, AVT, Ahobete izango dira aurrerantzean... Badakizue ontzi hutsa dela zarata gehien ateratzen duena!

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

WEBGUNEAN ➔ www.smsoinu.com

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZA

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

OHARRAK
1. **BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragari
2. **BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPS sistema aktibatuta izatea. GPS sistema aktibatuzko, jarraituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alde ematea duan eta Ki jantziaren bakoik ordaintu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPS sisteman alta ematea duan dira.
* Euskaltel deitu: 900 84 02 00 telefonora. ** Vodafone: deitu 123+ // Movistar: deitu 609+.
3. **ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. **PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin ditzaitegun abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezateke nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu: 902 01 21 48 telefonora.

TRIKITIXA
Bexamele ta pastela (Maizta ta birri) | **BEXAMELA**
Bokespok (Kepa Junkera) | **BOKESPOK**
Hik lan eta nik jai (Tajia) | **HIK**
Itsas ontzi batei (Kaxano) | **ITSAS**
Kupela (Eneko eta Larralde) | **KUPELA**
Mila galdere (Aitz/Maiden) | **MILAI**
Nirekin (Gozategi) | **GOZATEGI**
Ny Hirahira (Kepa Junkera) | **HIRA**
Txanpon baten truke (Aitz/Maiden) | **TXANPON**

Himnoak
Eibar | **EIBAR**
Athletic Club | **BILBAO**
Osasuna | **OSASUNA**
Reala | **REAL**
Real Union | **UNION**

Herrikoiak
Bagarei | **BAGARE**
Desde Santurce a Bilbao | **DESDE**

Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) | **SOROTAN**
Bai euskarari (Pantxo) | **BAI**
Bakezaleak (Anje Duhalde) | **BAKE**
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) | **BIZKAIA**
Eperak (Anje Duhalde) | **EPERRAK**
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) | **EUSKAL**
Euskalun berraren balada (Oskorri) | **EUSKALDUN**
Ez da posible (Ruper Ordonika) | **POSIBLE**
Furra Furra (Oskorri) | **FURRA**

1,2,3,4...Real!! | REAL
Alboka | **ALBOKA**
Athletic leue!! | **IEUP**
Buztan bertsoa | **BERTSO**
Hartu... Aitaren ta semea... | **AITAREN**
Hartu... Ansar | **ANSAR**
Hartu... Argentinara | **ARGEN**
Hartu... Mexikora | **MEXIKO**
Hartu... Miami | **MIAMI**
Independentzia | **INDEPEN**
Irrintzia | **IRRINTZI**
Jotake irabazi arte | **JOTAKE**
Milazu! (pilota) | **MILAZU**
Suprinua | **SUPRINU**
Tobera | **TOBERA**
Txalaparta | **TXALA**
Txanbela | **TXANBERA**
Txoxtx | **TXOTX**

KURRI4
ADARIAK
MUSKARIA
EGUZKILORE1

EH1
BABAK
KALABER1
EGUZKILORE2

BILBO
BERAKATZAK
POPATIK
EGUZKILORE3